

uk

201. zenbakia / 2011ko irailaren 23a



EMKAT

Eman izena Getxoko euskaltegietan! ¡Matricúlate en los euskaltegis de Getxo!



Elaina Moreno
Ostalaria

Inma Guerrero
Ama

Ana Angulo
Ikaslea

Naiara Alonso
Dendaria



GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA

Lope de Vega kalea 12, 3A. Tel.: 94 464 62 99. euskaltegi@getxo.net

LAUAXETA AEK EUSKALTEGIA

Iparbide kalea 6. Tel.: 94 430 47 34. lauaxeta@eak.org

J. A. AGIRRE EUSKALTEGIA

Algortako etorbidea 104. Tel.: 94 460 66 71. ja.agirre@euskalnet.net

Bai&By, GETXO

Algortako etorbidea 76-B. Tel.: 94 491 50 60

GETXOKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA Tel.: 94 466 00 10. euskara.zerbitzua@getxo.net

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILA: Boluntzarreta Elkarte
HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
e-mail: uk@dizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
ERREDAKZIOA: Zuberroa Iturburu, Julen Nafarrate,
Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia,
Algortako Bertsu Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martínez (944 911 337)
FILMAZIOA: Laster Grafika S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



Aldizkari hau Euskal Herriko
herri aldizkari eta euskara elkarteentzako
Topaguneko partaide da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Slackline Portu Zaharrea.
6. FACEGUK. Non bota duzu udako parrandarik potoloena?
7. LEHEN ETA ORAIN. Plentziako Eleiz Plaza.
11. ERRETRATUA. Carmen Ubillos.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20.
Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. LZPre aurkako akanpada Getxon.
28. ARGAZKIA. Muruko putzua.
30. BERBETAN. Elena Arzak.
34. FOTOGRAFIA. Ines Bermejo.
40. SAKONEAN. Haur-eskolak Uribe Kostan

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Film Sozialak Jaialdiaren III. edizioa.
43. MUSIKA. Xabier Leteri omenaldia.
44. LIBURUAK. Mitoak bizirik mantenduz.
45. KIROLAK. Pakea Bizkaia barriro gure artean.
46. ELKARRIZKETA. Auzolan Topaketak.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Gilda.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Algortako trainerua Zierbenan, 1981.
54. AITORMENAK. DJ Xaibor

Azala: Asier Mentxaka

www.ukaldizkaria.biz



30 Elena Arzak

Berbetan

Su motelean jarri dugu berbetan ikasturte hasierako lehen protagonista; on egin!



11 Carmen Ubillos



54 DJ Xaibor

Clio Industrial 19 EURO egunero



Kango luzea 35 EURO egunero



Kango 25 EURO egunero



Tf. 682 466 466

www.leioarentacar.com

Leioa Berri Auto

HARTU TXANDA ONLINE-CITA ONLINE

www.renaultleioa.com

Tf. 94 480 46 02

David Crestelo Kres

> Plasentia Butroe museoko arduraduna

Ametsen defentsan

Armando Llamosas arkeologoaren baimenarekin, berak aldizkariaren 199. zenbakian idatzitako gatazketako azpiegituren inguruko artikulua jarraituko dut, kostaldearen defentsan zentratuta hain zuzen ere.

Armandok esaten duen bezala, gure kostalde osoa gotorlekuz josita zegoen, eta gotorleku bakoitzean talaiaiak jartzen zituzten etsaien etorrera zelatzeko. Gorlizko Aizkorri, Axkorri edo Ustrikoetxe lurmutur txikian zegoen gotorleku bat, 25 bat metrora itsasoaren gainetik, eta oraindik hor bertan bere aztarnak ikus daitezke. Azkorritik paseoa nabilen bitartean, talaiaia Ermua mendian itsasoari begira imajinatzen dut, aspertuta eta bakardadean, akaso bere maiteagan pentsatzen. Mende batzuk lehenago, talaiaiaien arbasoak, leku berean arerioak bilatu beharrean, baleen presentzia arrantzaleak ohartarazteko prest egoten ziren.

Inguru horretan oraindik kanoi bat duen bunkerra ikus daiteke Gorlizko itsasargia baino apur bat beheago. Beste hiru kanoiak Mungjako Soietxeko kuartera eraman zituzten, akaso azken 22 urteetan Bota kuarterie eta erein porrua ekimenean parte hartu dutenak beldurtzeko asmoz? Utzi zutena hor bertan soldaduska egin zuten inguruko gazteek urtean behin erabiltzen zuten; agian, hango aginteak oraindik zeruertzean bouen uhara ikusten zuelako, eta beldurti, Eusko Gudarostearen aurka tiro egiten zuen.

(Ba al dakizu zergatik den Gorlizkoa herriaren izena hartu duen itsasargi bakarra, beste itsasargiek lurmuturraren izena hartu dutenean? Tik, tak, tik, tak...)

Plentziako talaiaiaien bizitza errazagoa zen, ziur aski, etxetik gertu lan egiten zuelako, Arricoarian hain zuzen ere. Elbarria, Ermuko laguna bezalakoa, ezin zuen arrantzan ibili eta, are gutxiago, bere herritarrekin itsasoak zeharkatu. Guzurmendi mendiaren harkaitzezko luzapenaren inguruan zegoen Arriko Arritxu. 1793. urtean lau kanoi zeuden, 8 eta 16 mili-



metrokoak, talaiaiak edo beste batek zaintzen zituenak. Duela gutxi arte, leku horretan karabineroak mantentzen ziren; agian Anton de Garay pirata gorliztarraren La Trinidad ontziaren zain.

Karabineroen postu zaharretik bizirik dirauen eraikuntza-elementu bakarra horma bat da. Eta orain interpretazio panel bat jarri dute, “gotorleku horren memoriari balioa emateko eta ezagutarazteko”.

Plentziko kale-izendegian Kastillao Aldapa aurkitzen dugu. Ez dakit hemen gotorlekuren bat egon zen ala ez. Entzunda daukat I. Gerra Karlistan kanoi-bateria bat egon zela eta agian Prudencia Renteria, Juana Gana, Concepcion

Mardaras eta Micaela Maruri, beste 33 emakumerekin batera, haiek sortutako emakumezkoen batailoian herriaren defentsan ibili ziren, Tomas Zumalakarregiren kontra.

Barrikako Gaztelu lurmuturrean (Lichilinchavia izenez 1726. urteko txosten baten arabera) itsas kanoitegiaren azken aztarnak daude, Muriola hondartzatik gertu. 1793. urtean hor zeuden bi kanoi ez zebilen, Lemoizko Aurremenzako gotorlekuan gertatzen zen bezala. Kasualitatez, edo agian ez, asko errepikatzen zen egoera hau gure kostaldearen defentsetan: kanoiak apurtuta zeuden; beraz, talaiaiek eta karabineroek denbora igaro beharko zuten beste zereginetan, akaso euren maiteaz pentsatzen. ○

gu geu

Kaixo, aspaldiko! Zelan bizi?

Horrela hasi ditugu gure kolaboratzaileei irailan bidali dizkiogun e-posta gehienak: “Kaixo, aspaldiko! Zelan bizi?": Egia esan ez dira hainbeste gau joan uda ona opa eta iraila arte agurtu genituenetik. Oraindino bulegoan galduta ditugu 200. zenbakia egiteko behar izandako apunteak. Hala ere, udako oporren eragin magikoak, urrutiko iraganera eroan ditu uztailako buruhausteak eta laino artean galduta ekarri gintuen bulegora irailan.

Bosgarren martxa jarrita hasi behar izan dugu ikasturtea. Antolaketa barria, banaketa barria... eta garrantzitsuena: atal barriak! Apurka 2011-2012rako agindutako aldaketak deskubritzen joango zara. Hasteko hiru proposamen: kale-inkesta, erreportajea eta pintxo errezetak. Hirurak zugaz egiteko asmoz jarri ditugu martxan; kalean dauden eztabaidak lau haizetara zabaltzeko, zure iritzia orriotara ekartzeko, etxeko sukaldean Portu Zaharra tabernako pintxoakaz espermentatu ahal izateko. Eskuak bai, baina ideiak behar ditugu; badakizu non gauden!

UK-ko lantaldea



PORTU ZAHARRA, 2011KO IRAILA

Slackline hormatzarrean/ Soka mehe baten gainean alde batetik bestera ikusleei “Uuuuuuuuuuu”-ak ateratzen dioten trapezistak ikusteko ez duzu zirkura joan behar. Portu Zaharrean ohiko irudia bihurtu da goikoa; slackline deritzo gure eskualdean arrakasta handia izaten ari den kirol modalitate horri. Mendian zein parkean, haitz zein zuhaitz batetik bestera mugituz ibiltzen dira ausartak. Gurean, Portu Zaharrean aurkitu dute babesleku. Kontuz ibili beharko dute gero; Algortako uretako “guaytoak” kosk egingo baitie! ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

Auzokideen iritzia jakin gura duzu?
Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak,
eztabaida sor ditzaketenak...
Ilatzi galdera **gure facebook-en**,
eta zeure partez luzatuko dugu!

Non bota duzu uda honetako parrandarik potoloena?



Portu Zaharra

Jose Ignacio Polo

> arrantzalea

Kontxako Bandera egunean bota dut parrandarik potoloena. Anaiak irabazi zuen bandera Urdaibaigaz, eta parranda itzela izan zen... oraindino osteagaz jarraitzen dut!



Leioa

Alaitz Billate

> teknikaria

Parrandarik onenak Leioako sanjuanetan eta Udondoko jaietan bota ditut, nire herriko jaiak direlako eta jai oso jatorrak direlako! Gainera mozturrotu egin gara, akelarrean parte hartu dugu, bakailaoa eta paella prestatu...



Algorta

Josu Capetillo

> musikaria

Udako egunik onena Iruñeko sanferminetan igaro dut, zapatuan. Algortako Areatxu fanfarreakoak joan ginen urtero legez (25 urte daroaguz) eta arrastitik gaueko 4ak arte ibili ginen kalez kale girotzen!



Algorta

Paula Urretxua

> ikaslea

Algortako Portu Zaharreko jaiak izan dira niretzat jairik onenak, batez ere lehenengo eta azkenengo eguna. Egundorietan herriko jendea egoten gara batik bat. Pijama eguneko parranda goizean hasi, eta hurrengo goizera arte luzatu zen...



Algorta

Mainer Perez

> ingeniaria

Egunik onena niretzat Marmitako Eguna izan da, Portu Zaharreko jaietan. Uda honetan lau edo bost egunetan bota dut juerga, eta aukeran nahiko izaten ditut eguneko farrak, gauekoak baino. Egundorietan goizeko bederatzietan hasi nintzen!



Berango

Enrique Ojinaga

> trenbideetako langilea

Aurtengo udan ez dut parranda askorik bota: Berangoko Santa Anan, Aste Nagusian, Plentzian... Egundorietan onena *Bacaladaren* eguna izan da, baina Berangon ospatu beharrean, Asturiasen geunden, eta bertan egin zuen Güitok bakailao goxo-goxoa!



[lehen]

GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA



[orain]

ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / PLENTZIAKO ELEIZ PLAZA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > autoestopa



2011ko ekaina, Plentzia

Testua: **Maialen Markaida** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: gure herri txiki hau da

Zahartzaroan sentitzen da dena zahartzen zaizula mundu handi baten txiki, absurdo bezain ahula. Gazteek gu ikustean egiten digute burla egia da hemen egongo nintzela esan nizula, baina zu ez zaude beraz amaitu da pelikula behingoz banoa (e)ta ez naiz hona itzuliko sekula.

Iragana ez dut berriz ekarri gura gogora, orain askatasuna da beharrezko dudana droga. Errepidera hurbildu naiz, jarri espaloï albora, autoestopa eginez atzamarra igo gora. Pelikula berri baten hasiera izango da hemendik atera nahi dut (e)ta ez dit inporta nora.

Gidari bat geratu da, nora noan galdetu du, edozein leku esan (e)ta sentitu naiz txoriburu. Kotxean pasa ostean hogeï minutu inguru, herri baten bajatu naiz, ez naiz sentitzen seguru. Zergatik mundu urrun bat izaten dugu helburu (e)ta hurbil egonda ere etxera itzuli nahi dugu?

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidai lezaguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

aek-k
hitza ematen dizu
 euskara ikasi eta euskaraz jakingo duzu

eman izena
 Urbe Kostako AEK
 Euskalduntze ikastaroak
 Autoikaskuntza
 944 30 47 34
lauaxeta@aek.org
www.aek.org

aek Gurena ikasteko
para entenderlo,
pour se comprendre

euskara > Euskal Herriko VI. kale neurketa abiatu da iraillean



Azken neurketaren arabera, euskararen erabilera Euskal Herrian %14,2koa da

Soziolinguistika Klusterraren eskutik, Euskal Herriko VI. kale neurketa abiatu zen irailaren 21ean, eta urriaren 29ra arte iraungo du. Neurketa bost urtean behin egiten dute, eta kalean euskararen erabilera neurtzea du helburu. Egitasmo honi esker, euskararen erabilerearen egoera ahalik eta modu errealean ezagutzeko aukera dugu. 5.000 biztanletik gorako herri danetan egiten dituzte neurketak, baita zenbait herri txikiagotan ere. Orotara, 250.000 hiztunetik gora behatzen dira, 60 herri baino gehiagotan. Adinaren, generoaren eta umeen presentziaren eraginaren arabera hainbat sailkapen egiten dituzte. 2006. urtean egindako azken neurketaren arabera, Euskal Herriko elkarriketen %14,2 euskaraz egiten dira. Ezagutzak nabarmen gora egin duen arren, 17 urtetan euskararen erabilera 3,4 puntu igo da. Umeek, gazteek, helduek eta zaharrek erabiltzen dute euskara gehien, hurrenez hurren. ○

ikastaroak > balio hezkuntzan trebatzeko ikastaroak Urtxintxan



Info+: www.urtxintxaeskola.org

Urtero legez, 2011-2012 ikasturterako ikastaro ugari prestatu ditu Bizkaiko Urtxintxa Eskolak, aisialdiko formazioa eta jendartearen eraldaketan eragiteko trebakuntza eskaini asmoz. Elkarrekin 25 urte beteko dituzte laster, eta urtemuga honetan ikastaro barriak antolatu dituzte gazte, hezitzaile, irakasle, guraso zein norbanakoari zuzenduta. Matrikulazio epea irailaren 30ean amaituko da, eta honako ikastaroak eskainiko dituzte: astialdiko begiralea, astialdiko zuzendaria, jendarte kultur dinamizatzailea, hezkidetzan aditua, kulturarteko hezkuntzan aditua, heziketa premia bereziak astialdian eta guraso eskola. Era berean, denbora urriagoa dutenek ikastaro laburragoak egiteko aukera izango dute: jaiotzetik euskaraz, emakume etorkinak, parte-hartzea bultzatzeko teknikak... ○

saiazgetaria
 HOTELA

Roke Deuna 25
 20808 Getaria
 Gipuzkoa

...harria *...lehengo garaiak...* *...itsasoa*

www.saiaszgetaria.com / info@saiaszgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

UKtest > txalaparta jaia ospatuko dute Algortan irailaren 24an



Ikastaroak, herri-bazkaria, zozketa, ikuskizuna e.a. izango da

Ttakun-ttakun doinuez beteko da Algorta irailaren 24an. Egun horretan 'Txalaparta Eguna' antolatu du UKtest elkarteak eta ohi legez, Telletxe plazan musika tresna tradizional honegaz lotutako hainbat ekimenegaz gozatzeko aukera egongo da. 13:30ean hasiko da jaialdia, txalaparta jotzen ikasteko ikastaro trinkoagaz. Gura duenak izango du aukera jotzeko, maila ezberdinak sortuko baitira: hasibarrientzat, sakondu gura dutenentzat, haurrentzat e.a. Ordu horretan txalaparta tresnak erosteko gunea ere zabalduko da. 15:00etan herri-bazkariaren txanda helduko da, eta kantu saio herrikoien ostean, Orabai batukadak perkusio tailerra eskainiko du. 19:00etan txalaparta ikuskizuna egongo da Barakaldo, Sopuerta, Sestao eta Gasteizko taldeen eskutik, eta txalaparta bat zozketatuko dute. Egunari txapela jartzeko 'txalaparta-orgia' antolatu dute; zertan datzan jakin gura baduzu, bertara joan beharko duzu! ○

zinema > euskarazko hainbat film egon dira ikusgai Zinemaldian



Irailaren 30ean estreinatuko dute Telmo Esnalen *Urte berri on, amona!* lana

Irailaren 17tik 24ra arte euskarazko filmak ikusteko aukera izan dute zinema zaletuek Donostiako Zinemaldian. Zinemiran, Euskal Herrian ekoizitako filmen sailean, zazpi film aurkeztu dituzte. Euskal zinemaren gala irailaren 21ean ospatu zuten, eta Elias Querejetak Zinemira Saria jaso zuen. Gala horretan Imanol Rayok zuzendutako *Bi anai* film luzea estreinatu zuten eta Gregorio Muroren *Zeinek gehiago irauin* film laburra proiektatu zuten. Zinemira sailaren barruan, era berean, bederatzi filmak osatutako Kimuak film laburren bilduma egon da ikusgai. Sail ofizialean Telmo Esnalen *Urte berri on, amona!* lana estreinatu dute, lehiaketatik kanpo. Halaber, Gotzon Elortza algortarraren hiru film laburrek ere leku berezia izan dute aurtengo Zinemaldian. ○



[erretratua]

"Lehen jente askok erosten eban, beraneanteak... oin gitxiago salduten da"

Carmen Ubillos > Ortutik plazara 30 urtez

Aldaxe baserrian jarri dugu hitzordua Carmen Ubillos sopoloztarragaz. Ortuan topatu dugu, ortuariakaz beharrean. Horretan ibili baita Carmen azken 30 urteetan, Sopolako plazan bendejera *"ortuko sobrateak salduten"*. Bere ustez, Sopela lar aldatu da azken urteetan, eta bendejerei erosteko ohitura galtzen ari da, supermerkatuen onurarako: *"Lehen jente askok erosten eban, beraneanteak... oin gitxiago salduten da"*. Bendejerak maiatzean hasten dira euren produktuakaz plazan batzen. Carmen astean birritan edo hirutan jaisten zen, etxeko ortuariak saltzen: *"Tomateak, bainak, kalabazine, zahanori, letxugak, piperrak... danetik!"*. 1990. urtean herriko nekazaritza azokan saria jaso zuen: kopa bat eta hamar mila pezeta. Bere ustez, genero ona lortzeko sekretu handirik ez dago: *"Makina onak eta satsa onak euki behar direz"*. Martin Apraiz senarraren laguntza ere jasotzen zuen, Alconzan beharrean ez zegoenean: *"Batek bakarrik ez du egiten!"*. Baina duela bost bat urte utzi zion plazara jaisteari, gogorra baita ortuko beharra: *"Oin bapez, etxerako justo-justo. Eta laster etxerako bez, zenbat eta zaharrau, txarrau"*. Berbaldia amaitu, eta erretratutik ez duela gura esan digu Carmenek. Guapa atarako dugula esanez konbentzitzen saiatu, eta hala erantzun dosku: *"Niri horrek bardin dosta, nazen moduko atara eta listo!"*. Eta gauza biak bete doguz! ○ Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Asier Mentxaka**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan

Villa de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Getxolanen katalogoak kalean

Enpresentzako Zerbitzuen eta urtea amaitu bitarteko heziketa eskaintzari buruzko katalogoak kaleratu ditu Getxolanek. Urriaren 28an egingo dute Enpleguaren Azoka

Enpresei urteko bigarren seihilekorako jardueren barri ematen dien katalogoa kaleratu du Udalak batetik, urteko azken lauhileko heziketa eskaintzari buruzko katalogoa bestetik, eta biak ala biak Getxolanen bitartez. Udalaren webgunean topa ditzakezu.

Getxolan Ekonomi Sustapen eta Enplegurako Zerbitzuaren bitartez argitaratu ditu Getxoko Udalak katalogo barri bi, bata urteko bigarren seihilekorako antolatutako jardueri buruzko informazioa eskaintzen du eta herriko enpresei zuzenduta dago, bestea urteko azken lauhileko heziketa eskaintza azaltzera dator, baina goazen banaka.

Ondoko jardueren barri ematen du lehenak: heziketa eskaintzari buruzko informazioa (Getxo Adapta LOPD, GetxoTIK Merkataritza eta Heziketa Iraunkorra), KZ Prestakuntza Ikastaroak (informazio eta komunikazio teknologia barrien heziketa), Getxo Meeting (herriko enpresarien arteko topagunea), kontratazioaren aldeko laguntza (diru-laguntzak Getxon erroldatuta dauden langabeak kontratatzeko, baita langileak aurkitzeko ere) eta Merkataritza Berdea egitasmoa.

Gainera, enpresei zuzendutako udalzerbitzuei buruzko informazioa ere biltzen du, besteak beste: enpresa kudeaketa hobetzeko formazioa eta teknologia barrietara egokitzapena: *“Etengabe aldatzen ari den merkatuaren erronkei aurre*



Izena emateko: Getxolan (San Martin 17, Algorta)

egitera lagunduko du horrek guztiak”, Udaletik jakinarazi dutenez.

Bestalde, Getxoko langabeentzako heziketari dagokionez, abendura arteko eskaintzaren barri ematen du bigarren katalogoak. Udalaren arabera *“duela hiru*

Langabeentzako ikastaroak aurkeztu dituzte ostalaritza, administrazio eta marketing arloetan.

urte burutzen ari den lan-ildoari jarraituz, lan-merkatuaren eskaintza eta udalerriko langabeak gaitzeko beharrak aztertutostean”.

Katalogoa aurkezteko eta hainbat ikastarori buruzko informazioa emateko hitzaldiak burutu dituzte irailean, ondoko gaiak landuz: ostalaritzako laguntzai-

le, administrari eta *Social Media Marketing Manager* delakoa.

Gainera, beste hainbat atal dauka katalogoak. Enplegurako prestakuntzari dagokionez, informatika-ikastaroak eta enplegu (BideoCurriculum tailer e.a.) nahiz lan-gaitasunen bilaketa (denboraren kudeaketa, lan-elkarrizketa e.a.) tailerren barri ematen du. Merkataritza eta Ostalaritza sektoreari dagokionez, urriaren 28an egingo den Enpleguaren Azokari eta sektoreagaz lotutako tailerrei buruzko informazioa eskaintzen du. Azkenik, ekintzaileak diren pertsonentzako prestakuntzaren barri ere ematen du.

Ikastaroetan parte hartzeko asmoa daukaten guztiak Getxolan Zerbitzuaren bulegoan izena eman behar dute (San Martin 17, Algorta). ○

Info+: www.getxo.net edo 944 660 140

Emakumeentzat

Jabekuntza Eskolaren eskaintza eta lokal barria



Martikoena kaleko eraikineko lokal barrian egingo dituzte ikastaro gehienak

Emakumeentzako Jabekuntza Eskolak prest dauzka ikasturte barrirako ikastaroak, parte hartzeko aurrematrikula egin daiteke irailaren 26ra arte, Herritarrek Artatzeko Bulegoetan edo www.getxo.net gunean. Onartutakoen zerrendak irailaren 30ean ezagutaraziko dituzte eta matrikula urriaren 3tik 10era egin behar dute aipatu bulegoetan.

Aurtengo barritasun handiena lokal aldaketa da, izan ere, ikastaro gehienak Jabekuntza Eskolaren bulegoan egingo dituzte (Martikoena 16, Algorta), Villamonteko Kultur Etxea (bereziki liburutegia eskura izatea eskatzen duten ikastarotarako) edo Gobelako kiroldegia erabiltzea beharrezko duten tailerretarako izan ezik. Partaide bakoitzak gehienez ikastaro bitan eman dezake izena, aste-

buruetan egingo direnetan izan ezik, besteak batera egin ahal izatea posible izango delako.

Ikasturte honetan 13 ikastaro eman dute, sei lerroen barruan: komunikazioa, emakumeen nortasuna eta subjektibotasuna, elkartasuna eta trukea munduko emakumeakaz, feminismoa, osasuna eta kultura berdefinitzen. Iraupena ikastaroen arabera izango da, baina urria eta maiatza bitartean eskainiko dituzte. Gainera, bizikleta mekanikoari buruzko 4 orduko tailerra ere antolatu dute.

Ikastaroei irautan tartean haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dute eta EHUko antzinako planeko ikasleei kredituak emango dizkiete. ○

Info+: www.getxo.net
edo 944 660 136

HIL DA JOSE MANUEL ETXEBARRIA GANGOITI

Iraila hasteagaz batera hil zen Jose Manuel Etxebarria Gangoiti Getxoko Udaleko EAJko zinegotzi ohi eta Getxo Rugbyren egungo presidentea; 1995etik 2007ra lan egin zuen. Ogasun zinegotzi eta alkateorde ere izan zen hiru legegintzalditan. Imanol Landa Getxoko alkateak doluminak helarazi zituen prentsa ohar batean.

ANTZOKIAREN ERAIKINA ALTXATZEN HASI DIRA

Getxo Antzokia barriaren eta Musika Eskolaren azalera gaineko egiturak eraikitzen hasi dira, sotoko solairuak amaitu ondoren. Udalak jakinarazi duenez, Eraikinen zatirik gehiena metalezkoa izango da, eszena-gunea izan ezik, hori hormigoizkoa izango baita. Lanek bederatzita hilabete iraungo ei dute. Lanen aurreko fasea amaitzeagaz batera zabaldu dituzte Andres Cortina eta Andikoetxe kaleak. Lehenengoa oinezkoentzat izango da hemendik aurrera.

TAILERRAK EMAKUME ETORKINENTZAT, DOAN

Urriaren 15ean hasiko dira Emakume Etorkinentzako Formakuntza eta Topaketa Tailerrak eta parte hartzeko izena eman daiteke Herritarren Arretarako Bulegoetan. Zortzi tailer egingo dituzte, aldirikako zapatuetan eta 17:00etatik 20:00etara, Gizarte Zerbitzuetan (Urgull z/g, 2. solairua, Algorta), eta doan. Ondoko gaiak landuko dituzte: Emakumeen indarraren balorazioa, migrazio prozesuak suposatzen dituen aldaketei aurre egitea, amatasuna, lan eskubideak, sexualitatea, indarkeria matxistaren aurkako borroka, eta beren onurarako errekurtso publiko eta pribatuak. Umezaintza zerbitzua egongo da eta tailerrei buruzko informazio zabalagoa eskainiko dute urriaren 1ean, zapatuan, 18:00etatik 19:00etara, Emakumeentzako Jabekuntza Eskolaren lokalean (Martikoena 16, 1. solairua, Algorta).

Info+: www.getxo.net
edo 944 660 151

 **nurlan**

Lorezaintza
zerbitzu orokorrak

Tf. 656 754 243

Asociación de Amigos Algorteros
"Amumak"

Asteazken poetikoak
Itsas Fundazioa
Euskara eta Algortako Izenak
Alzheimer, 3.Adina, Boluntarioak

<http://www.algorta.org>
<http://amumak.getxo.net>
e-mail: solaventoster@gmail.com
Móvil: 656773080

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Illeta kalea 1 • ALGORTA

Leire Muñoz Betegon > Gazteentzako bideosormen tailerra

“Telefonoak era interesgarrian erabiltzen dituzte gazteek, lan hori bideratu behar da”



Izena emateko: bideosormen@gmail.com edo 652 736 019

Wanted lehiaketan gazteen egitasmoak saritzen ditu Getxoko Udalak urtero. Proiektu bi aurkeztu dituzte aurten, horietako bat da gazteentzako bideosormen tailerra. Leire Muñoz Betegon artista areetarrak emango du, Ioana Muñoz Betegon, ahizpa, eta Daniel Hoyos Isuskizagaz batera aurkeztu zuen. Algortako Gauegun gaztelekuan egingo dituzte tailerrak, 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta (Urgull, z/g). Oraindik garaiz zabilta parte hartzeko, urriaren 4an hasiko baita lehen tailerra. Martitzen eta eguen arrastietan badaukazu plana!

—Laster hasiko zarete tailerragaz, proiektua Wanted lehiaketan saritu zuten.

—Bai, aurkeztu eta bigarren saria lortu genuen. Nire proiektua zen eta lagun bigaz aurkeztu nuen. Gazteen bizitzan ikusentzunezko lengoia apur bat txertatzea da asmoa. Bakioitzak bere jakinminak lengoia horren bidez zelan aurkeztu ikastea gura dut, intereseok dituzten gaiak ikertu eta horietan sakon dezaten irudian zelan islatu ikastea da helburua.

Ahalmen kritikoa apur bat gara dezaten irudiaren aurrean, irudiak sortzen ikas dezaten, imaginek zelan funtzionatzen duten eta zer lor dezaketen, esperimendua egingo dute; irudiak jolastu eta sortuko dituzte eskura dauzkaten eta erabiltzen dituzten tresnakaz: argazki-kamerak, bideo-kamerak, eskanerrak e.a. Apur bat saltseatuko dute, islatu gura duten mezua nola irudikatu ikasteko.

—Taldea bat baino gehiago egongo da?

—Izena ematen dutenen arabera, baina asmoa da adinaren arabera banatzea tal-

deak izan ere, 12 eta 15 urteko gazteek ez dituzte interes berberak. Sortzen diren taldeen arabera ere zehaztuko dugu ordu-tegia. Oraindino izena eman daiteke, ia-ia tailerra hasi arte. Gerora ere animatuz gero, arazorik ez dugu izango onartzeko.

«Garrantzitsua da artean era askean aritzea, artea ezinbestekoa da bizitzan»

—Zelako metodologia erabiliko duzu?

—Esperimentala, guztiz aktiboa. Oso irekia naiz datozen ideia eta proposamen-
nei aurre egiteko tresnak horien eskuetan ipintzeko. Alde teorikoa ere izango du, baina batez ere, esperimentala izango da, gazteak lehen unetik hasiko dira tresnak erabiltzen.

—Zergatik aukeratu zenuen gai hori?

—Bideosormen ikastaro batzuk eman ditut dagoeneko eta aukera asko daudela ohartu nintzen. Artea da gehien gustuko dudana eta ikusentzunezkoak aukera ematen du arte arlo ia guztiak jorratzeko eta horietan sartzeko. Gazteek eskuko telefonoak modu oso interesgarrian erabiltzen dituztela ikusi nuen, baina lan hori bideratzea falta zuten, era kontzientean lantzea zentzuzko emaitzak lortzeko. Getxon artea jorratzeko aukera handirik ez zegoela ikusita, ikastetxeetan ez baita asko lantzen, arte arloa apur bat garatzeko aukera ikusi nuen lehiaketagaz.

—Artea da gehien maite duzuna, Arte Ederrak ere ikasi duzu.

—Hori da, eta artearen falta sumatzen dut egunerokotasunean. Bizitzan oso garrantzitsua da artean aritzea era libre eta askean, lengoia propioa garatzeko. Artearen bidez gara daiteke, ezinbestekoa da artea bizitzan. ○

Info+: www.getxo.net

Euskaraz egiteko prest?

Berbalagunak azaroan hasiko dira batzen, baina **urrian eman** behar da **izena**



Izena emateko: Martikoena 16, 2. solairua (Algorta)

Euskaraz berba egiteko ohitura daukazu edota mintzapraktika egin gura duzu? Orduan Berbalagun egitasmoan parte har dezakezu aurten ere. Euskara hobetu, bide horretan lagundu, gehiagotan erabili edo euskaraz bizitzeko aukera ezin hobea duzu eskuarte.

Taldean, astean behin eta ordubetez, kalean, tabernan edota bizikletaz, Berbalagun programan parte hartzeko hamaika forma dago, baina guztietan elkartzeko dira ohiko hitzunenak eta mintzapraktika egin gura dutenak. Gainera ekintza osagarriak ere antolatzen dituzte ikasturtean zehar: urteerak beste Berbalagun taldea-

kaz, afariak, Euskal Herriko Mintzalagun Eguna, zaletasun taldeak e.a. Guraso-laguna talde berezia ere sortu da, ikastetxeko gurasoak elkartzeko dituenak. Umeak direla-eta, euren ordutegien beharretara egokituta dago.

Gustuko jarduera aukeratu eta izena eman besterik ez duzu. Egizuk antolatzen ditu taldeak, beraz, haren bulegora jo behar duzu izena emateko (Martikoena 16, 2. solairua, Algorta). Urrian egin behar duzu, azaroko lehen astean batzen hasiko dira-eta. ○

Info+: www.egizu.org
edo www.facebook.com/egizu

GETXOPHOTO EZ DA AMAITU!

Aragazki erraldoiak ikus daitezke Algortan irailaren 1etik. Getxophoto argazki jaialdirako kokatutako irudiak dira, herritarren eta bisitarien gozamenerako. Hilaren lehen egunetan egin zuten hainbat ekintza, baina jaialdia ez da amaitu. Hil osoan zehar egongo dira ikusgai argazkiak eta zapaturo bisitaldi gidatuak egiten dabilta, euskaraz eta gaztelaniaz: Arte Ederretako ikasle batzuek erakusten dituzte sortarik adierazgarrienak *Ibili* programaren baitan. Ordu bi inguru irauten dute eta parte hartzeko beharrezkoa da lehenik izena ematea, telefonoz edo posta elektronikoz: 946 576 475 edo getxophoto@getxophoto.com. Euro 2 ordaindu beharko da.

Info+: www.getxophoto.com

KEPA ACEROREN ABENTURA BARRIA, ALASKA ETA PATAGONIAN

Ameriketara joan ez zaigu bada gure surf-laria! Kepa Acero ezin geldi egon eta Alaska, Peru eta Patagoniara alde egin du algortarrak, *Azken muga* espedizioaren baitan. Urte hauetako filosofoaren ildotik, sekula surfeatu bako olatuen bila joan da, eta badirudi lortzen ari dela. Bidaia jarrai daiteke internet bidez, irudi xelebreak batu ditu Acerok asteotan.

Info+: www.kepaacero.com

GETXOARTEN PARTE HARTZEKO IZEN-EMATEA

Abenduaren 2tik 4ra egingo dute GETXOARTE, arte sortu barrien aretoa, ohiko legez, Areetako Geltokia plazan. Baina orain eman behar da izena bertan parte hartzeko, irailaren 30a baino lehen. Edozein motatako arte sorkuntza erakutsi liteke, beraz, artista gazte guztiek aurkez ditzakete proposamenak: www.getxo.net gunean topatuko dute beharrezko informazioa. Iaz 62 gazte sortzaileen lanak erakutsi zituzten.

Info+: www.getxo.net

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Pedro Zarrabeitia > argazkilaria

“Nire helburua izan da edertasuna islatu, emozioak transmititu eta euskal sentimendua bilatzea”

Zarrabeitiaren disko-formako estelen irudiak ikus daitezke Kultur Leioako erakustaretoan. Orain 40 urte irabazi zuen lehen saria; ez da profesionala, baina ahalik eta denbora gehien ematen du kamera eskuan. Bilbotarrak, Uribe Kostan daroa bizi erdia.

—Euskal Herriko disko-formako estelak liburuan batutako argazkiek osatzen dute erakusketa, barriki argitaratua.

—Batetik, 240 marrazki eta argazki ikus daitezke. Itxuraren arabera banatuta daude, azalpen testuek lagunduta. Bestetik, digitalki koloretzatutako 400 estela proiektatzen dira pantailan, Bepizkundeko musikak lagunduta, izan ere, estelen ospe aroa izan zen hura.

—Zergatik horrelako liburua?

—Gure kulturaren barruan berebiziko garrantzia daukan mundu artistiko eta misteriosua ezagutzera emateko. Duela 20 urte ez da argitaratu gaiari buruzko libururik, gainera, daudenen artean batek ere ez ditu batzen Euskal Herria lurralde guztiak. Estelak kolorez margotuta daude eta informazio zehatza dauka, adituak ikertzera animatu eta lan horretan laguntzeko moduan.

—Bizi guztia daroazu argazkigintzari



Zarrabeitiaren lana hobeto ezagutzeko: www.pedrozarrabeitia.com

lotuta, zelakoa da zure lana?

—Edertasuna islatzea izan da nire helburua, emozioak transmititzea eta euskal sentimendua bilatzea nire ideietan. Bide horretan bilatu dut, berbarako, euskal arrantzaleen kolorearen zentzua beren ontzien margoan.

—Irudi Taldea sortu zenuen Algortan beste argazkilari batzuek, lana bultzatzeko beharrezkoa al da antolatzea?

—Garai hartan garrantzitsua izan zen tal-

dea, argazkigintza dinamizatu, prestigioa eman eta ikasteko. Orduan nahitaezkoa zen talde bateko kide izatea ezagutzak partekatzeko. Gaur egun, unibertsitateak sobera betetzen du funtzio hori, baina interesgarria da taldean antolatzea.

—Erakusketaz gain, zertan zabilta?

—Liburua osatzea esperientzia oso atsegina izan da. Gaian sakontzen jarraituko dut liburua osatu guran, eta euskaraz zein frantsesez argitaratzeko. ○

Dantza, musika, aretora

Udazkenagaz batera datoz **Dantza... a escena** eta **Munduko musikak zikloak**



En attendant l'inattendue ikuskizuna eskainiko du Nats Nus taldeak urriaren 2an

Kaleko sasoia izaten da udabarria eta uda, baina udazkenagaz batera ate barruko ikuskizunen txanda iritsi ohi da, baita Kultur Leioara ere; urriagaz bat hasiko dira dantza eta musika zikloak.

Dantza... a escena zirkuituaren baitan bost lan ekarriko dituzte abendura bitartean. Urriaren 2an inauguratuko du auditoriuma Kataluniako talde batek, Nats Nusek: *En attendant l'inattendue* ikuskizuna eskainiko du. Urriaren 20an *Menu del dia* dantzatuko dute Noemi Vianak eta Jesus Rubiok.

Azaroaren 24an, barriz, *Carni di prima cualità* antzeztuko du Natxo Montero dantza konpainiak. Abenduaren 18an *Mintzo* aurkeztuko du

Dantzaz konpainiak eta abenduaren 30ean, Roberto García Alonsok antzeztuko du *Zing Zing*, Gabonetako antzerki zikloagaz bat eginik; 5 euro ordaindu beharko da lan hori ikusteko, eta gainontzekoetan, 10 euro.

Bestalde, lau talde ekarriko dituzte *Munduko musikak* zikloan. Urriaren 7an zabalduko du Zenet madrildarrak eta hilaren 21ean iritsiko da Palestinatik Mira Awad kantaria. Azaroaren 11n Polonia eta Gaztela eta Leoneko musikariek osatutako Kroke & La Musgaña taldea arituko da, eta 25ean, Oquestrada portugaldarra. Kontzertu bakoitzerako sarrera 22 eurokoa izango da, bonoak 66 eta 75 euro bitartean salduko dituzte. ○

TXOPOETAK ITXIKO DU JAI DENBORALDIA

Mikel Deunaren omenezko jaiak izango dira herriko azkenak irailaren 29tik urriaren 2ra, eta ohiko legez, zer eginik ez da faltako. Eguenean hasiko dira jaiak, umeentzako jolas eta luntxagaz. Barikua 30ean poker torneoa, luntxa, pailazoak, eta kontzertuak egongo dira, Baketazo eta Crazy Chains taldeakaz; ondoren, disko berbera egingo dute. Zapatuan, barriz, umeentzako jolasak, poker torneoaren jarraipena, igel-toka txapelketa, herri-kirolak, indaba-jana eta mozzoro lehiaketa egingo dituzte, besteak beste. Gainera, erromeria eskainiko du Haitzama taldeak. Domekan amaituko dira jaiak, baina hamaika gauza izango da: puzgarriak, meza, Leioako musika bandaren kontzertua, mus eta tortilla lehiaketak, euskal dantza alardea edota txokolote-jana. Beraz, ondo pasa txopoetarrak!

ARGAZKIAK, MUSIKA ETA FILM LABURRAK

Denborak ia bereak egin du eta azkar ibili beharko duzu lanak aurkezteko, izan ere, urriaren 21a baino lehen aurkeztu behar dira argazki zein film laburren lehiaketetarako irudiak. Leioako Pop-Rock musika lehiaketan parte hartzeko, barriz, azaroaren 11 arte aurkez daitezke kantak. Animo, oraindino garaiz zabilta-eta!

Info+: www.kulturleioa.com

LEIOAKO DENDETAN EROSTEAGATIK 20 EURO

Leioako Merkatarien Elkartearen baitako dendetan erosteagatik 20 euro lortzeko aukera eskainiko dute. Boletoak banatzen hasi dira erosketa bakoitzagaz eta 20 euroko sari asko gordetzen dute batzuek, beraz, erosleek momentuan bertan irabaz dezakete saria. Horretaz gain, irailaren 26tik urriaren 1era hainbat produktu aterako dituzte merkatariek prezio oso baxuetan. Herriko merkataritza bultzatuz gura dute ekimen hauek.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaairratia.com



Aktualitatearen alde ezberdinak
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

[erandio]

Leire Calzada > Axpuru Kultur Elkarteko kidea

“Nekazal azokagaz alternatiba eskaini eta ekoizpen ekologikoa bultzatu gura dugu”

Nekazaritza Azoka egin zuten irailaren 11n Astrabuduan, beste behin ere, baina ez nolana hikoia. Produktu ekologikoak saldu dituzte eta gazte ekoizleen lana bultzatu gura dute Axpuru elkarteko lagunek.

—Ekoizle gazteen produktuak egon dira erakusgai eta salgai Astrabuduan, zergatik gazteenak?

—Lehendik ere azoka egiten zuten auzoan, beste talde batek antolatu izan zuen hainbat urtetan. Axpuru elkartekook berreskuratu egin genuen orain zenbait urte, baina beste ipuspegi batez. Nik neuk baneukan interesa produktu ekologikoetan eta nekazaritzan emakumeek daukaten funtzioagatik. Beraz, azoka mota hau egitea erabaki genuenean irizpide bi zehaztu genituen: ekoizle gazteak behar zuten, hastea beti kostatzen zaielako gehiago, eta euren produktuak ekologikoak izan behar zuten. EHNE sindikatuagaz harremanetan ipini ginen eta beraiek antolatzen dugu azoka, horrela produktu ekologikoak izatea ziurtatzen dugu.

—Zelako produktuak ekarri dituzte?

—Gehienak ortuariak izaten dira, eta horretaz gain, pastelak, kremak zein xaboiak eta ogia. Aurten txerrikiak egiten



Axpuru elkartearen ekimen nagusia da Astrabuduko Nekazal Azoka

dituen ekoizle bat ere etorri da eta esku-langileek ere ipintzen dute postua. Euskal Herrikoak izan behar dute eta gehienak arabarrak eta bizkaitarrak izaten dira, baita gipuzkoarren bat edo beste ere.

—Eta zergatik azoka?

—Egiteari utzi zioten eta berreskuratu gura genuen, horrek piztu zigun gogoia. Gainera, azoka dagoenean, herria agentetan sartzen da eta bizitza ematen dio egun horretan. Erandion, egia esan, ez

dago bizitza kultural handirik ere, eta merezi du horrelakoak mantentzea. Bestalde, alternatiba eskaini gura dugu eta ekoizpen ekologikoa bultzatu. Gainera, bestelako ekintzak antolatzen ditugu egun horretan: talo tailerra egin dugu, rokodromoa, erakustaldiak, idiak gurdiakaz, kale animazioa, e.a. Erreferente bihurtzen ari da Astrabuduko azoka. Beti ere ekimen kulturalak egiten ditugu, eta ahal dela, euskaragaz eta euskal kulturagaz lotuta. ○

Beldurrik ez!

Beldur barik **lehiaketa abiatu du Udalak**, lanak aurkez daitezke **azaroaren 11 arte**



Lehiaketaren oinarriak: www.beldurbarik.org

Beldur barik jarrera daukazu? Bada, lehiaketan parte har dezakezu. Helburua da “emakumeen aurkako indarkeria gaitzesten duen adierazpen artistiko oro aitortzea, balioestea eta sustatzea”, gura den formatoan: musika, artelanak, performance, literatura, hausnarketak, e.a.

Bigarren antolatu du BERDINSAREA Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako eta Berdintasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sareak lehiaketa. Erandioko Udalak babesten du, baina EAEko edozein gazte parte har dezake; azaroaren 11 arte aurkez daitezke lanak.

Erandioko ikastetxeek lehiaketan

modu aktiboagoan parte hartzea bultzatuko dute, “gazteak portaera sexisten prebentzioa landu eta erasoen aurrean rol aktiboa izan dezaten bultzatzeko”.

Maila bi daude 12 eta 17 urte bitartekoentzat bata, 18 eta 26 urte bitartekoentzat bestea. Mila euro bana jasoko dute irabazleek, eta 300 euroko Herri Saria emango diote herritarrek gustukoena daukaten lanari. Gainera, epaimahaiak proposamen batzuk aukeratu dituzte eta azaroaren 26an egingo den Beldur Barik Topaketan sartuko dituzte.

Proposamenak bidali behar dira ondoko helbidera: jarrera@beldurbarik.org. ○

IKASTAROETAN IZENA EMAN DAITEKE

Laster hasiko dira ikasturte barriko ikastaroak han eta hemen, Erandion badago zer aukeratu, Gazte Bulegoak eta Lutxanako Tirante Plataformak eskaintza kaleratu dute daborduko. Gazte Bulegoaren ikastaroen barri eta izena emateko epeak www.erandio.net gunean topatuko dituzu, hileko agendan. Tirante Plataformak, barriz, hiru ikastaro prestatu ditu oraingoz: clown, antzerkia, dantza garaikidea eta gazteentzako antzerkia. Laster emango du yoga eta automobilaketa ikastaroen barri.

Info+: www.erandio.net
eta www.plataformatirante.com

MUSIKA ITSASADARREAN ENTZUTEKO PREST?

Uda agurtuko du Kontzertuak Itsasadarrean zikloak, beste urte batez. Irailaren 23an hasi da Damba Fussion World Musica taldearen emanaldiagaz, baina badator musika gehiago. Irailaren azken egunean arituko da Mr. Swing Jazz Quintet taldea, eta urriaren 7an, Jazz Colective. Kontzertu guztiak izango dira Altzagako ontziralekuan, 19:30ean, doan.

AIKO-REN DANTZALDIK ERANDION ETA SOPELAN

Dantza tradizionalaren mundua kaletarrei zabaltzeko antolatzen du Aiko taldeak Dantzaldi Ibiltaria urtero. Bizkaiko hainbat herri bisitatzen ditu, Erandion eta Sopela, besteak beste. Erandion astelehenero elkartuko dira Altzagako azoka zaharrean, eta Sopelan eguaztenero, Iberre ikastetxean, oinarritzko ikastaroa eta Dantzagunea egingo dituzte. Gainera, hilean behin erromeria izango da Durangoko Plateruena Kafe Antzokian eta jota edo fandangoari buruzko mintegi monografikoak Zarautzen. Oinarritzko ikastaroan parte hartzeko 120 euro ordaindu behar da, Aiko taldearen webgunean dago izen-emate orria.

Izena emateko: www.aikotaldea.com



Luberr Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandion (Blizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarrizte lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarrizte, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inauseta, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?



Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



Arazoei agur... Tf. 902 54 08 54

www.arlan.biz

UDALA DESBLOKEATZEKO AKORDIOA LORTU DUTE

Sopelako Udala ohiko funtzionamendura itzuliko da Bilduk eta PSEK Udala desblokeatzeko akordioa lortu ostean. Akordio horretan, Udaleko egituraren funtzionamendurako hainbat puntu adostu dituzte alderdi biek. Aurrerantzean bederatzita batzorde egon beharrean zazpi egongo dira. Alkate eta alkateordeak %25 jaitsi dute euren soldata, eta %23 jaitsi dute beste sailtako (udalbatzak, batzordeak e.a.) ordaintzak. Mankomunitateko ordezkariak Bilduk eta PSEK osatuko dute, eta BBK-ra, barriz, EAJko ordezkariak joango da.

ELKARTEEN GIDA OSATU GURA DU UDALAK

Sopelako Udalak herriko elkarte danak batuko dituen gida kaleratzeko asmoa iragarri du. Horretarako, deialdi publikoa egin die elkarte sopoloztar guztiei. Elkarrekin euren izena, helbidea, telefonoa eta e-posta jakinarazi beharko diote Udalari, Kultur Etxean edo kultura@sopelana.net helbidean. Halaber, euren elkartearen nondik norakoak deskribapen laburra egin beharko dute.

EUSKAL JAIKO SARIAK BANATU DITUZTE

Irailaren 10eko asteburuan Euskal Jaia ospatu zen udaletxe plazan. Besteak beste, nekazaritza azoka antolatu zuten, eta hainbat sari banatu ziren: barazkietan Jose Antonio Intxaurtieta barrikarrak irabazi zuen txapela, frutena Jose Etxebarriak, gaztaien saria Jesus Aranburuk irabazi zuen eta loreen kasuan Imanol Aranburuk. Aurkezpen onenaren saria Adela Andikoetxea urduliztarrak eroan zuen, eta sopoloztar onenari emandako saria Zuazuak eroan zuen. Sukalki txapelketan, barriz, Hiru-Miñate taldeak eskuratu zuen garaipena eta margo-lehiaketaren txapela Letizia Gasparrek irabazi zuen, helduen kategorian.

Sormena nagusi Kurtzion Talde-lana bultzatzen duten ikastaro barriak eskainiko ditu Kultur Etxeak ikasturte honetan



Herriko artistek margo-gela izango dute euren beharretarako

Barrikuntzaz beterik dator Kurtzio Kultur Etxeko denboraldi barria. Sormena eta talde-lana oinarri hartuta, hainbat ikastaro eskainiko dituzte ume zein helduentzat: 'zein koloretakoa da zure bizitza?' autoestimua ikastaroa, sabel-dantza, 'margolari nagusiak' ikastaroa, antzerkia gazte eta helduentzat, 'zer da artea?' ikastaroa, haurrentzako margolaritza, irudi fotografiko tailerra, argazkigintza tailerra, tango argentinarra eta film labor tailerra. Euskarak presentzia nabarmena izango du ikastaroetan, izan ere, tailer gehienak euskaraz

eskainiko dira. Sopelan erroldatutako-entzatz izen-ematea irailaren 27an amaituko da, eta ez erroldatuentzat, barriz, 27tik 30era izango da. Kultur Etxera, udaletxera edo web orrialdera jo daiteke izena emateko. Ikastaro guztiak urrian hasiko dira.

Era berean, herriko artistek euren beharretarako margo-gela izango dute aurrerantzean Kurtzion. Martitzen, eguazten eta eguenetan 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, eta asteburuetan, 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. ○

Itziar Molina eta Matxalen Amas > Udal euskaltegia

“Oinarrizko elkarrizketak eta dendetako hiztegi zehatzak lantzen ditugu ikastaroan”



Izen-ematea irailean egin beharko da: 946 763 154

‘**Dendaketan**’ merkatari eta ostalarientzako euskara ikastaroak eskainiko ditu bigarren urtez Sopelako Udal Euskaltegiak. Izen-ematea zabalik dago jada, eta ikastaroen helburua merkatari eta ostalariei zerbitzua euskaraz eman ahal izateko bitartekoak eskaintzea izango da. Halaber, beste euskara ikastaro batzuk ere antolatu dituzte.

—**Ikasturte honetan ‘Dendaketan’ ikastaroak antolatu dituzue barriro...**

—Bai, proiektua iaz hasi zen. Ostalari, tabernari eta dendarien artean galdeketa egin genuen Mankomunitate, Aitxu eta Udalarekin batera, proiektuan interesa zuten ala ez ikusteko. Animatzen zirela ikusita, ikastaroak sortu eta gu arduratu ginen taldeak osatzeaz. Nahikotxo animatu ziren eta bost talde sortu genituen. Ikasturte honetan ikasle askok ikastaroagaz jarraituko dute barriro, baina hasi-barrientzako taldea ere sortuko dugu.

—**Zein da ikastaroen bidez lortu gura duzuen?**

—Euskalduntzea, Sopelako denda eta tabernetan gutxienez oinarri-oinarrizko elkarrizketak euskaraz egiteko aukera egotea. Eta hortik aurrera posible bada euskalduntzeagaz jarraitzea, hobeto.

—**Zein da ikastaroen edukia?**

—Hasieran oinarrizko elkarrizketak lantzen ditugu eta maila batera heltzen direnean, hiztegi zehatzagaz hasten gara. Errotulazioa ere egin dugu dendetan jartzeko, jendeak euskaraz berba egin deza-keela jakin dezan.

«Aisa etorri barrientzako hizkuntza ikastaroak eskaintzen ditugu»

—Bestelako ikastaroak ere antolatzen dituzue, ezta?

—Bai, ohiko profiletako eskolak ditugu, maila danetan. Bestalde, Guraso Eskola, bizkaiera ikastaroa eta Aisa etorri barrientzako hizkuntza harrera-ikastaroak eskaintzen ditugu. ○

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak




Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net

Etxeart
Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak



Sagastikoetxe Industrialdea
Etxalde 2 - Pabiloi 11
48630 Gortiz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144



<http://www.etxeart.com>

IKASTAROETAN IZEN-EMATEA ZABALIK

Heldu eta umeentzako hamaika ikastaro antolatu du Berangoko Kultur Etxeak denboraldi barrirako. Tailerrak urrian hasi eta ekainean amaituko dira. Helduen kasuan, honakoak eskainiko dira: altzariak zaharbarritzea (goizez eta arrastiz), zur lanketa (arrastiz), tai-txi (goizez eta arrastiz), eskulanak (goizez), margolaritza (arrastiz), saloi-dantzak (arrastiz), larru artistikoa (goizez), ekialdeko fusio dantza (arrastiz) eta euskara (goizez eta arrastiz). Umeei dagokienez, barriz, dantza modernoa, margolaritza (ingelesez), girabira, xirulamirula, antzerki, eskulan, pandero eta ingeles ikastaroak. Izen-ematea Berangoetan edo Santa Anan egin beharko da irailaren 29a baino lehen. Nagusien Etxeak, bere aldetik, gimnasia, tai-txi eta saloi-dantza ikastaroak antolatu ditu. Horretaz gain, kantatzea gogoko duten nagusiek Beti Aurrera abesbatzan parte hartzeko aukera izango dute.

EAJ ETA PP, ORDEZKARIAK MANKOMUNITATEAN

EAJk eta PPK ordezkatuko dute Berango Uribe Kostako Mankomunitatean. Hiru ordezkarik dagozkie Berangori, eta EAJko bi zinegotzik eta PPKo beste batek osatuko du ordezkaritza berangoztarra. EAJk egin zuen proposamena udalbatzan, eta PPKren babesa jaso zuen. Bilduk hauteskundearen emaitzen arabera banaketa proposatu zuen, baina EAJk eta PPK boto gehiago batu zituzten.



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
 BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
 • GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
 DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
 ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



Ospe handiko lasterketa Nazioarteko XXIV. Milia Gobelaldeko zirkuituan ospatuko da urriaren 1ean, parte hartu!



Izen-ematea irailaren 30a baino lehen egin behar da

Punta-puntako atletak ikusteko aukera izango dugu urriaren 1ean Berangon. Nazioarteko Miliak 24 urte bete ditu aurten eta urtero legez, lehen mailako korrikalariak hurreratuko dira Berangora. Izan ere, urtez urte garrantzia irabazi du Miliak, mota honetako Estatuko hirugarren lasterketarik garrantzitsuena da.

Baina eliteko kirolariek gain, edozein korrikalarik parte har dezake Milian. Horretarako, beharrezkoa da irailaren 30a baino lehen izena ematea Berangoeta Kultur Etxean (18:00etatik 20:00etara),


946 682 143 telefonoan edo millaberango@gmail.com helbidean.

Gizon eta emakumeak zazpi kategoriatan banatuko dituzte: umeak, kadetak, gazteak, juniorrak, beteranoak, herritar eta federatuak eta eliteak. Ezintasun fisikoa duten lagunek ere parte hartzeko aukera izango dute handbike kategorian (izen-ematea 944 424 294 telefonoan). Txikienek emango diote hasiera lasterketari, 16:40ean, eta goi mailako korrikalariak izango dira azkenak, 19:05ean. o

Info+: www.berangoatletismo.com

Carlos Prieto > Araknologia jardunaldietako antolatzailea

“Gizartean eta zientifikoki, araknologia oso gutxietsita dago”



Uribe Kostan, orain arte Leioan baino ez dira egin armiarnei buruzko ikerketak

Irailaren 23tik 25era arte Araknologia Jardunaldiak izango dira Gorlizen eta Plentzian, GIA Grupo de Araknologia Iberica taldeak antolatuta. Antolakuntza lanetan dabil Carlos Prieto EHUko irakaslea. Hitzaldiak Goñi Portalen eta Teresiano eraikinean izango dira.

—Zein izango da jardunaldien edukia?
 —Barikua laginketa araknologiko bategaz hasiko dugu Gorlizko duna, baso eta landetatik. Alkoholean kontserbatu eta domekan aztertuko ditugu. Arrastian, barriz, itsas-armiarnei buruzko hitzaldi batek lau konferentziagaz osatutako zikloa zabalduko du. Zapatu goizean hainbat hitzaldi labur egongo dira, eta arrastia libre izango da. Azken egunean laginketaren azterketa egin, eta taldearen urteko bilera egingo dugu.

—Zein helburugaz antolatzen dituzue?
 —Araknologia zabaldu gura dugu, ‘fitxaje’ barriak egiteko. Gero eta ikasle gu-

txiagok ikertzen dute araknologiaren mundua, batik bat, zientifikoki eta gizartean oso gutxietsita dagoen disziplina delako. Araknologoak ‘tximeleta bildumazaleak’ legez ikusteko ohitura dago, ‘zientzialari peto-petoak’ izango ez balira bezala.

«Gorlizko armiarnei laginketa egingo dugu, espezieetan banatuz»

—Oraindino ikerlariak badute lan handia egiteko araknologian...

—Bizkaian armiarnei buruz orain arte egindako ikerketen panorama negargarria da. Lan handia dago egiteko. Uribe Kosta eskualdean Leioan baino ez dira egin laginketak. Jardunaldietan Gorlizko armiarnei laginketa egingo dugu, espezieetan banatu, eta gerta daiteke hemen oraindino erregistratu barik dauden espezieak agertzea. o

OINUTSIK
 KONTSULTA PODOLOGIKOA
 Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
 48600 Sopelana
 Tf. 94 404 74 20
 CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

OSABIDE HORTZ KLINIKA
 Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina
 ALGORTA
 94 430 76 96



Torrene 2
 48990 ALGORTA
 94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati
 OPARIAK MODA GAZTEA



Abant

Psikopedagogia eta Eskola Orientazioa

Ikaskuntzaren Zailtasunak
 (idazketa, irakurketa, ulermena, dislexia...)

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza

Basarrate 20 lonja 48991 (Algorta-Getxo)
 Tf. 94 404 91 65 - 656 70 31 61

EUSKARA ZERBITZUAREN IKASTAROAK, PREST!

Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak hiru ikastaro berezi antolatu ditu ikasturte barrirako: gurasoentzako euskara ikastaroa, Aisa etorri barrirentzako hizkuntza harrera ikastaroa eta bizkaiera ikastaroa. Aisak 60 orduko iraupena izango du, eta beste biek 100 ordukoa. Izen-ematea irailean egin behar da Gorlizko Uribe Kosta AEK euskaltegian (946 763 154).

ETXEKO KONPOSTAIAREN KANPAINA BARRIA

Ortua edo lorategia duzu eta ongarrria egin gura duzu zure hondakin organikoak? Uribe Kostako Mankomunitateak etxe konpostaiaren kanpaina barria jarri du martxan, konposta egin gura dutenentzako prestakuntza eman eta konpostadoreak banatzeko. Izena emateko 943 554 874 telefonora edo konpostaia@uribekosta.org helbidera idatz dezakezu, urriaren 7a baino lehen. Hitzaldiak eta konpostatzaileak debalde izango dira.

IKASTAROAK URDULIZEN: PINTURA, DANTZA, YOGA...

Zabalik dago jada Urdulizko Kultur Etxeko ikastaroetan izena emateko epea. Eskaintza potoloa izango dute urduliztarrek: ekialdeko dantzak, yoga, pintura heldu zein umeentzat, kakorratza, zur-lanketa, musika-hizkuntza heldu eta haurrentzat, pianoa haur eta helduentzat, trikitixa, musika eta mugimendua, zeharkako txirula e.a.

PLENTZIA

Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Berezia abiatu dute



2009. urtean Eusko Jaurlaritzak Monumentu Ondare izendatu zuen Alde Zaharra

Alde Zaharra birgaitzeko plan berezia abiatu du Plentziako Udalak. Honen helburua Alde Zaharraren zaharbarritzea izango da; eraikinetan, kaleetan, saneamendu-sareetan, hiri-altzarrietan, kantoeitan, karkabetan e.a. Norabide horretan, Alde Zaharra Gune Berezi legez izendatzeko eskatuko dio Plentziako Udalak Eusko Jaurlaritzari. Izan ere, udal iturrien arabera, izendapen horregaz Alde Zaharra erabarrizteko dirulaguntzak jasoko lituzke Plentziak. Eskaera egin baino lehen,

eta alegazio fasearen ostean (irailaren 15ean amaitu zen epea), Udalak Alde Zaharreko 'birgaitze-gabeziak' aztertuko dituen proiektua abiatuko du, izendapena lortzeko betebeharreko urratsa baita.

Gainera, auzokideek eta komunitateek dirulaguntzak jasotzeko aukera izan dezakete, hainbat eraikin mantendu barik dagoelako. Bizkaian Udalez gaindiko erakundeetatik bere zaharbarritzerako laguntza jaso ez duen Alde Zahar bakarra Plentziakoa da, Udalaren arabera. ○

Ira. 23 - Urr. 7

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

ERAKUSKETAK

PLENTZIA

► **Karlos Limiaren tallak eta eskultura.** Irailaren 30era arte. Gofi Portalen.

► **Plentzia Classix: ibilgailu militar klasikoak.** Irailaren 25ean, 10:00etatik 14:00etara.

ERANDIO

► **60 urte elizbarrutian, 60 urte arkitekturaren, arkitektura erlijiosoa Bizkaian.** Irailaren 26tik urriaren 6ra. Astrabuduko Kultur Etxean.

ANTZERKIA

GETXO

► **Las txirentas en la vida y sus cosas.** Irailak 24, 20:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 8/10 euro.

ERANDIO

► **Anbotoko Mari.** Irailak 24, 18:00etan. Altzagako azoka zaharrean. Doan.

► **Una habitación en el sol.** Urriak 2, 19:30ean. Astrabuduko Kultur Etxean. 2 euro.

LEIOA

► **Razas.** Irailak 30, 20:30ean. Kultur Leioako Auditoriumen.

BERANGO

► **Fabrika.io.** Urriak 2, 18:30ean. Berango Antzokian.

► **Desaparecidas.** Urriak 8, 19:00etan. Berango Antzokian.

MUSIKA

ERANDIO

► **Kontzertuak Itsasadarrean zikloa.** Irailak 23 eta 30, eta urriak 7, 19:30ean. Altzagako ontzirekuan.



Eutsi filma emango dute Urdulizen

► Zinema

Zinema Euskaraz zikloa Mankomunitatean

Euskarazko zinemagintzari tarte zabala eskaini dio aurten Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak eta oraindino badago aukera film eskaintza oparoaz gozatzeko, hemendik eta urri amaierara. Irailaren 24an Gorlizen ikusi ahaliko da Amerikanuak dokumentala, hilaren 29an Urdulizen emango dute *Eutsi!* eta 30ean Sopelan *Kubo Magikoa*. Urrian, barriz, Lemoizen eskainiko dute *Cristobal Molon* filma, Urdulizen *Midas erregearen altorra* 7an eta Barrikan *Supertramps* 8an. Baina hil osoan zehar emango dituzte pelikulak Plentzia, Gorliz edota Lemoizen ere. Sartzeta doakoa eta ordutegia herri bakoitzaren arabera izango da. Zinemaldira joan beharrik ez duzu...

• **Non:** Mankomunitateko herrietan • **Noiz:** Irailean eta urrian

► **Dantzaldia Jamaica orkestragaz.** Irailak 25, 18:00etan. Astrabuduko Josu Murueta plazan.

► **Mendibaiarte abesbatza.** Urriak 1, 19:30ean. Astrabuduko Kultur Etxean. Doan.

LEIOA

► **Baketazo eta Crazy Chains.** Irailak 30. Txopoetako jaiak.

► **Haitzama.** Urriak 1. Txopoetan.

► **Zenet.** Urriak 7, 21:00etan. Kultur Leioako Auditoriumen.

ZINEMA

GORLIZ

► **Amerikanuak.** Irailak 24, 19:00etan. Teresianon.

BERANGO

► **Glup.** Urriak 25, 18:00etan. Berango Antzokian.

SOPELA

► **Kubo magikoa.** Irailak 30, 18:00etan. Kurtzio Kultur Etxean.

LEMOIZ

► **Cristobal Molon.** Urriak 1, 18:30ean. Kultur Etxean.

URDULIZ

► **Midas erregearen altorra.** Urriak 7, 20:00etan. Kultur Etxean.

BARRIKA

► **Supertramps.** Urriak 8, 18:00etan. Udaletxean.

BESTEAK

GORLIZ

► **Araknologia jardunaldiak.** Irailaren 23tik 25era.

► **Mendibike Eguna.** Irailak 25, martxa 09:30ean hasiko da.

SOPELA

► **Egun irlandarra.** Irailak 24, 18:00etatik aurrera, Sekekon: erakusketa, dokumentala, hitzaldia, janari tradizionala eta kontzertuak.

► **Sexu aholkularitza.** Irailak 27, 18:00etatik 20:00etara. Kultur Etxean.

BERANGO

► **Berangoko Milia.** Urriak 1, 16:40an. Gobelalde kalean.

► **Taupada Gunea.** Urriak 3, 11:30ean, Berangoetan, ikasturteko lehen bilera.

PLENTZIA

► **Esaera zaharren txapelketa.** Irailak 24, 11:00etatik aurrera.

GETXO

► **Xalaparta jaiak.** Irailak 24. Algortako metro plazan.

ERANDIO

► **Sexu aholkularitza.** Urriak 7, 18:00etatik 20:00etara. Drogamenpekotasuneko gelan.


► **Erudio Gauean proiektuko irteera, Takolos Radio Klubak antolatuta.** Urriak 8, 21:45ean. Altzagako Irailaren 23a plazan.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!


BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Erne, atxurrak!

LZP Lurralde Zati Planaren aurkako akanpada antolatu zuten irailaren 8tik 12ra Getxoko Andra Marin, 'Ibarbengoa' geltoki barriaren alboko landetan. Makina bat lagunek parte hartu zuten bertan antolatutako berbaldi, bertso-afari, lantalde, herri-bazkari eta ibilbideetan. LZPK Uribe Kostarako 30.000 etxebizitza barri aurreikusten dituela salatu, eta porlanaren grisaren aurrean, landetako berde bizia aldarrikatu zuten.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Muruko putzua

Getxoko Andra Marin

Betidanik egon da hor, bertakoek horrela ezagutu dute behintzat. Ez da oso handia, baina badauka xarma. Zapaburutan ez ei dira ausartzen umeak, barriz, barrura jaustea nahiko erraza omen. Getxoko Andra Mari auzoan dago putzua, Muru inguruan, Karmeliten komentuaren alboan. Orain aste gutxi handik hurbil egin dute Lurralde Zati Planaren aurkako kanpaldia, Bizkaia orokorrean eta Getxok zehazki bizi lezakeen aldaketen aurka (etxeak eraiki, baserriak eraitsi e.a.). Batzuk alde, besteak kontra, baina zer gertatuko ote da Muruko putzua eta gisako parajeakaz?

[berbetan]

Suitzan ikasi eta Londres, Zurich, Paris, Genova eta beste hainbat hiritan praktikak egin zituen. Baina, etxeko suaren berotasunera bueltatu behar zuela argi izan zuen hasieratik Elena Arzakek (Donostia, 1969). Usain eta zapore goxodun abizen ezagunak, betaurrekodun gizon baten irudia ekartzen die burura askori. Baina horrek ez du mintzen “aitaren alaba”. Harro dago egindako lanagaz eta gustura onartzen ditu konparaketak. Mingain zorrotzenek 2010eko Espainiako Gastronomia Saria eman zioten maiatzean; ondo merezita eman ere. “Amoñaren sekretuek” sukaldari handia hazten eta hezten lagundu dute.

Elena Arzak

On egin!

Testua: **Maitane Nerekan** / Argazkia: **Arzak**

—Gaztetan sartu zinen sukaldean...

—Donostian Eskola Alemanean ikasi nuen 18 urte bete arte. Selektibitatea egin eta alemaniera menperatzen nuenez, Suitzako Alemaniako ostalaritza eskolara joan nintzen, Lucernara. Ondoren sei urtez atzerrian egon nintzen Londres, Paris, Genova eta beste hainbat lekutan praktikak egiten. Txikitan, 11 urte nituenean, ahizpa Martarekin etortzen nintzen jatetxeko sukaldean laguntzera. Marta gaur egun Guggenheim museoko Hezkuntza eta Interpretazio zuzendariordea da; nik txoratuta dagoela esaten diot. Amoñak, izeko batek, amak eta aitak lan egiten zuten jatetxean eta udan laguntzera etortzen ginen. Orduan piztutik zuzendari gaitan gastronomiarako grina. Nire aitaren ama sukaldari oso ona zen; txikitan berarengana etortzen nintzen eta urteak aurrera joan ahala gustua hartu nion.

—Atzerrian ikasketak egin zenituen, baina etxera bueltatzea erabaki zenuen. Beharrezkoa ikusten duzu sukaldari onak atzerrian ikertzea?

—Garrantzitsuena gustuko izatea da. Autodidaktak diren hainbat sukaldari ezagutzen ditut, baina gazte batentzat

tzen eta euskal sukaldaritzaren analisi sakona egin nuen. Ondoren, hemengo eta kanpotik ekarritako ideiak nahastu nituen.

Aita eta biok definizioa aurkitu dugu, nahiz eta norberaren definizioa egitea zaila den. Gure sukaldaritza zein motata-

“11 urte nituenean ahizpa Martarekin etortzen nintzen jatetxeko sukaldean laguntzera”

gaur egun ostalaritza eskola eta praktika ugari egitea da egokiena. Teoria eta praktikaren konbinazioa ezinbestekoa da. Garrantzitsua da bidaiatzea beste kulturak ezagutu ahal izateko, baina norberaren errespetatzearen garrantzia ahaztu gabe. Bidaiatzeak adimena zabaltzen dizu. Ni sei urte eta gero bueltatu nin-

koa den galdetzen digutenean ondokoa esaten dugu: egile sukaldaritza, euskal arimaduna, ikerketa, garapena eta abangoardia. Egile sukaldaritza, pertsonen estiloa markatzen dutelako; Arzaken jaten duguna ez dugu beste leku batean jaten. Euskal arimaduna, subkontzientean zapore kodea daukagulako, txikitan



eta ingurukoengandik ikasi duguna; koinatzen dugunean konturatu gabe zapore horrekin egiten dugu. Azkenik, ikerketa, garapena eta abangoardia, egunean gaudelako.

—**Oso modan dago sukaldarien laborategiak ikustea. Etengabe ikertzen zaudetela ematen du. Baina badago asmatzeko zerbait berririk?**

—Jatetxean bertan ikerketa sukaldeak daukagu aspaldi, 2000. urtetik edo. Aitak bizitza osoa eman du ikertzen. Egia esan, ia dena asmatuta dago, baina estiloak eta aurkezteko modu berriak daude. Gizakia oso irudimentsua da, horregatik sorpresak emango ditu beti. Garapenaz eta ikerketaz baliatu behar dugu aurrera egiteko. Gauzak asmatu baino, jateko eta platerak aurkezteko modu berriak sortzen ditugu.

—**Zein produktu, zapore edo sukaldaritzaren mota da zure kuttunena?**

—Hobeto ezagutzen dudana sukaldaritzaren hemengo da; horrekin identifikatu egiten naiz. Nik sukaldaritzaren on eta txarraren artean ezberdintzen dut, edozein tokitan aurkitu baitaitezke biak. Gureaz gain, Asiako eta Hego Ameriketako sukaldaritzaren oso gustuko ditut. Orain gutxi, Australian egon nintzen eta hangoak ere harrituta utzi ninduen. Mundu berriko sukaldaritzaren da, fusiozkoa. Orain Eskandinaviako herrietako eta Afrikako sukaldaritzaren interesatzen hasia naiz. Hala ere, oso garrantzitsua da azpimarratzea sukaldaritzaren ona zein txarra dagoela mundu osoan. Hemen ere, badaude gaizki egiten dutenak, orokorrean ondo jaten badugu ere.

—**Jatetxe edo lagun arteko bazkari batera zoazenean zer baloratzen duzu?**

—Ni, aita bezala, pertsona erraza naiz; esfortzua da baloratzen dudana batez ere. Sukaldariaren asmo ona. Huts egite txikiak erraz onartzen ditut.

—**Euskal Herriaren sukaldearen inguruan batu izan gara beti; ondo jateari garrantzi handia ematen diogu. Hori**

mantentzen dela uste duzu?

—Mantentzen da. Jatetxera jende oso ezberdina etortzen zaigu, gehienak euskaldunak. Sukaldaritzarekiko sentiberatasun berezia daukate. Hemen ez dago klase sozialik jateko orduan. Egia da diru gehiago daukana gehiago datorrela. Baina badago urtean behin datorren jende asko eta denak berdin jaten eta

“Gure sukaldearen horrela definitzen dugu: egile sukaldaritzaren, euskal arimaduna, ikerketa, garapena eta abangoardia”

ulertzen dute. Opari-txeke ere oso modan dago, gurasoei, erretiratu berriari edo lagunei oparitzeko. Sukaldaritzarekiko interesa gora doala uste dut. Eguneroko erritmoak ez digu etxean gustura koinatze astirik uzten; horrek jendea jatetxetara geroz eta gehiago etortzea ekarri du. Euskaldunoi jatea gustatu izan zaigu beti eta gustatuko zaigu betiko.

—**Krisiak eragin du euskal sukaldeetan, maila profesionalen zein etxeetan?**

—Guk zorte handia izan dugu zentzu horretan, oso gutxi nabaritu baitugu krisia. Oso pozik gaude horregatik, baina ikusten dugu krisia kalean badagoela. Gurean sukaldaritzarekiko interes handia dago eta hori nabaritzen da. Ez dugu beti produktu garestienaren bila joan

“Sukaldaritzaren sentiberatasun berezia daukagu euskaldunok; hemen ez dago klase sozialik jateko orduan”

behar; badaude aukera xumeagoak, prezio aldetik ondo daudenak eta luxuzko produktuak direnak. Leka onak edo hemen daukagun goi-mailako barazkiak zein arrain batzuk oso onak eta eskuragarriak izan daitezke. Jendeak ez ditu produktu garestiak erosten, baina bai kalitate onekoak.

—**Tradizioz, etxeko sukaldeetan emakumeak ikusi ditugu, baina goi-mailako sukaldaritzaren izen handiak gizonak dira gehienetan. Zuk barriz bidea egin duzu mundu horretan. Zelan bizi duzu hori?**

—Gizarte auzia da. Orain gutxi arte emakumeon lan mundua etxeko lanetara mugatuta zegoen; gutxika sozializa-

tzen. Zu zeu kazetaria zara, baina orain gutxi arte kazetari gehienak gizonak ziren. Ostalaritzaren eskoletan berdin gertatu da; gaur egun berdintsua da gizon eta emakumeen kopurua. Denborak aldatuko ditu zerrenda horiek. Euskal Herria matriarkatua izan da beti eta emakumeok garrantzi handia izan dugu. Arzakaren adibidez langileen %80 emakumezkoak gara, baita goi-karguetan ere. Sei partida buruzagi gaude; gozogintza burua, haragi burua, arrain burua ... Nire aita emakumeekin lan egitera ohituta dago, bera zen gizon bakarrenetakoa. Nik inoiz ez dut arazorik eduki eta espero dut emakume guztiak nire egoera bera bizitzea. Uste dut hori aldatu egingo dela, gizar-tearen eta denboraren indarrak.

—**Maiatzean 2010eko Espainia Gastro-**

nomia Saria eman dizute. Zelan hartu zenuen izendapena?

—Ez nuen inondik inora espero. Poztasun handia izan zen. Jatetxean gurekin dagoen taldea oso garrantzitsua da niretzat; aspaldi daude gurekin eta bakoitzak zerbait ematen dio kateari. Beraientzat ere poztarria izan zen saria,

horren parte sentitzen zirelako; hori asko gustatu zitzaidan. Bestalde, 1974. urtean aitari emandako sari bera da; horrek asko poztu zuen familia. Hala ere, argi daukagu lanean jarraitu behar dugula, lo hartu gabe.

—**Zertan datza horrelako sari bat lortzeko sekretua?**

—Lehenik eta behin egiten duguna maitatu behar dugu. Horrez gain, irmotasuna eta lan eskerga ezinbestekoak dira. Lan egiteko aukera eta aldeko baldintzak izatea ere garrantzitsua da. Nik zorte handia izan dut zentzu horretan, familia-jatetxean lan egiteko aukera izan dudalako. Askok baloratzen dut zerotik hasten den jendea, begirune handia zor diet. Zortea izatea ere ezinbestekoa da, jende on asko baitago.

—**Plateraren zerbait gelditu zaigu...**

—Askotan egin didaten galdera da ea aitaren alaba izatea zaila egiten zaidan, arraroa da zuk egin ez izana. Nire aitak gaztetatik izan du konfiantza nire sukaldaritzaren estiloan, ideiak ematen utzi dit. 19 urterekin egin nuen lehen platera berarekin; oso eskuzabala izan da zentzu horretan. Arlo laboralean gustura

Bestalde, gustatuko litzaidake azpimarratzea Euskadin pribilegiatuak garela, bai sukaldaritzarekiko dugun sentiberatasunagatik, baita etxean bertan ditugun lehengaiengatik ere. Itsasoa, lurra, esnekiak ezin hobe lantzen dituzten nekazariak... kanpotik datozen sukaldariek beti esaten dute hori. Nire amonak esaten zuen bezala, inoiz ez dugu

“Nire aitak gaztetatik konfiantza izan du nire estiloan; ulertzen dut jendeak konparazioak egitea”

sentitzen naiz, horregatik erabaki dut etxean gelditzea, kanpoan lan egiteko aukerak izan baditut ere. Nik ulertzen dut jendeak konparazioak egitea.

sukaldaritzaren ona egingo produktu onak erabiltzen ez baditugu. Hori horrela zen orain 20 urte, gaur egun eta 20 urte barru. ○

yoga-ikastaroa euskaraz

Urritik ekainera bitartean
Noiz: astelehena & eguaztenetan
Orduetgia: 19:30 - 21:00
Non: SAN NIKOLAS ikastolan (Algorta)
Prezioa: hilean 30 € / 25 € Berbalagun, Bizarra Lepoaneko bazkide & San Nikolas ikastolako kideek

(Urriaren 3, 5, 10 & 12an klaseak Aldai Patronatuan)

egizu!

INFORMAZIO + 619 935 541 egizugetxo@gmail.com
 Martikoena 16, 2. solairua ALGORTA www.egizu.org

ANTOLATZAIKAK LAGUNTZAIKAK

Irudia: by-sa Kyle Lease



Nortasunaren zirrikituak

Mugimenduaren bidez azaleratzen diren irudiak ekarri dizkigu Ines Bermejo (Romo, 1986) artista gazteak bilduma honetan. Arte Ederretan lizentziatu ostean, romotarra arte eszenikoetako bideosorkuntzan espezializatu da. Egun, besteak beste, *La Fionda* antzerki konpainia italiarragaz beharrean dabil. Argazkilaritzagaz ere ausartu da, hurrengo orrietan ikus dezakezunez. Gure barrena osatzen duten zirrikituak erretratatu ditu Inesek: ezarpenik bako adierazpenak, bizitako esperientziek gordetzen dituzten mugimenduak, eta aske egiten gaituztenak.

Argazkiak: **Ines Bermejo**
<http://www.flickr.com/photos/iness>







Haur-eskolak > fenomeno barria haziz doa

Ume txikien heziketarako zein eredu aukeratu? Eskaintza zabala

Haurtzaindegiak ezagutu ditugu orain arte. Pribatuak edo itunpekoak izanik, aspaldiko eskaria dira haur-eskola publikoak. Hari erantzuteko sortu zen Haurreskolak Partzuergoa eta

Testua: **Zuberoa Iturburu**

Haurtzaindegiak, haur-eskolak, haur-etxeak. Ume txikiez arduratzeko ez dago formula bakarra. Lantokira joan behar eta nor arduratuko da umeaz? Senideen esku uzten dute batzuek, haurtzaindegira eroan dituzte besteek, izan ere, umeen bizitzaren lehen urte-erarako eskolarik ez zegoen orain gutxi arte.

Fenomeno nahiko barria izango da, seguruenek, emakumeak etxetik kanpo lanean hasi zirenean umeak zer egin? Beharrak eraginda sortu ziren lehen haurtzaindegiak.

Baina orain gutxi arte pribatuak edo itunpekoak besterik ez dira egon. Sustapen partikularren ondorioz zabaldu zituzten batzuk, Aurrezki Kutxen gizarte-ekintzaren baitan beste batzuk, Ikastoletan ere ume-txoentzako gelak ipini dituzte apurka, beren hezkuntza eskaintza zabalduz.

Pribatuak garestiegiak askorentzat, itunpekoak zertxobait merkeago, baina nork bere poltsikotik ordaindu behar umearen heziketa. Zergatik ez zaio garrantziarik eman adin tarte horretako heziketari? Zergatik orain bai?

Azken urteotan haur-eskola publikoak zabaldu dituzte herri gehienetan, horretan dabilta. Haurreskolak Partzuergoa 2003ko irailaren jaio zen Eusko Jaurlaritzak eta EAEko hainbat udalek onartutako hitzarmenaren ondorioz eta 0 eta 2 urte bitarteko umeentzako Haur

Eskolen kudeaketa osoa burutzeko helburuagaz. Gauzak horrela, haur-eskolak sortzeko bideari ekin diote eskualdeko Udalek ere.

Haurtzaindegiak bezalakoak ote? Arlo ekonomikoa alde batera, heziketari dago-

Ikasturte honetan umetxoek %60,28 hasi da D ereduan, %28,58 eleanitzean eta %11,12 A ereduan

kionez desberdintasunak daude horien artean; beraz, alde handiagoa edo txikiagoa, haurtzaindegiaren arabera izango da. Horren barruan aipa genitzake hizkuntza ereduak eta kurrikulumak.

Baina zelako panorama daukagu eskualdean? UK-k lortutako datuen ara-



Haurreskolak Partzuergoaren baitan bederatzi haur-eskola zabaldu dituzte Uribe Kostan

ESKAITZA URIBE KOSTAN

GORLIZ, SOPELA

- Publikoak: 1
- Pribatu/itunpekoak: 1

PLENTZIA, URDULIZ, BERANGO

- Publikoak: 1

GETXO

- Publikoak: 1
- Pribatu/itunpekoak: 6
- Haur-etxeak: 1 laster

LEIOA

- Publikoak: 1 + 1 laster
- Pribatu/itunpekoak: 9

ERANDIO

- Publikoak: 2
- Pribatu/itunpekoak: 2

bera, Haurreskolak Partzuergoaren baitan bederatzi haur-eskola daude eta beste 19 haurtzaindegi pribatu eta itunpeko. Gainera, laster zabaldu behar dute Getxoko Areeta auzoan haur-etxe bat.

Bigarren matrikulazio kanpaina aurreko datuen arabera 1.088 ume inguruk hasi du ikasturtea. Argitu behar da datuak hurren-

kera bat baino ez direla, haurtzaindegi baten datuak falta eta beste 6renak iazkoak dira-eta. Gauzak horrela, umeen %30,79 hasi da Haurreskolak Partzuergoaren eskoletan eta %69,20 gainontzeko haurtzaindegietan.

Bestalde, hizkuntzari dagokionez, Partzuergoaren baitako haur-eskolek D eredu darabilte, euskara hutsezkoa.

Gainontzekoen artean 6 zentrok D eredu daukate, 10ek eleanitza eta 3k gaztelera hutsezkoa. Eta aipatu umeen %60,29 hasi da euskarazko ereduan, %28,58 eleanitzean eta %11,12 gaztelera-koan. Partzuergoaren zabalpenari so eginez, datozen urteotan aldatuko ote da Uribe Kostako eskema? ○

Bersoitz Odriozola > Getxoko Egunsentia haur-eskolako koordinatzailea

“Hezkuntza tarte honi ez zaio begirunerik, baina hemen ez ditugu umeak zaintzen, baizik eta hezi”

—Iaz zabaldu zen Getxoko haur-eskola publiko bakarra, zelakoa da?

—Beste haur-eskoletan lau gela inguru daude, baina guk zortzi ditugu eta igaritzen da aldea. Oraingoz 55 ume inguru dauzkagu, baina 84 izan genituen iaz, normalena litzateke dena betetzea.

—Getxon sei haurtzaindegi daude, nahikoa al da haur-eskola bategaz eskariari aurre egiteko?

—Momentuz bai. Halere, krisi une

honetan jende asko langabezian egonda, seguruenek gurasoek dirurik ez daukate umea haur-eskolara eramateko, eta eurak etxean egonda, bertan izango dute, baina egoera normalizatuz gero, ikusiko da. Dena dela, herrian beste haur-eskola bat zabaltzeko asmoa dagoela uste dut.

—Herri gehienetan zabaldu dituzte haur-eskolak, zergatik orain?

—Emakumeek ere lan egiten dute etxetik kanpo eta umea nonbait utzi beharra


dago. Halere, esan beharra dago hezkuntza tarte honi ez zaiola begirunerik. Jendearentzat haurtzaindegiak dira, baina ez ditugu umeak zaintzen, baizik eta hezi. Eskola funtzionamendua daukagu: ordutegiak daude eta umeek adinaren arabera ekintzak egiten dituzte. Hezkuntzaren zatirik garrantzitsua dena esan genezake, bizitzan zehar erabili beharreko gauzak ikasten direlako. Ez zaio garrantziarik ematen haur-eskolari,

hori zelan aldatu? Nik ez dakit.

—Azken aldi hika-mika sortu da Haur-etxeen harira, zer deritzozu?

—Ulertzen dut horiek zabaltzea, merkeagoa eta erosoago delako eta ordutegi zabalagoa dutelako. Baina zaintza egiten dute, han ez dute heziko umea. Gutxieneko batzuen arabera zainduko dute, arduradunak titulurik behar ez duelako; edozein izan daiteke zaintzaile. Nire iritziz ez da gomendagarria. ○

Getxoko lehen haur-eskola publikoa da Egunsentia, beste sei haurtzaindegi dago herrian





BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Ikusezinak, protagonista

Film sozialak **Jaialdiaren III. edizioa ospatuko da** irailaren 27tik urriaren 4ra



Jaialdiaren kartela

Pantaila handian lekuri izaten ez duten filmeek protagonismoa hartuko dute irailaren 26tik urriaren 4ra. Egun horietan ospatuko da *Film sozialak* Jaialdiaren III. edizioa. KCD Kultura Communication Desarrollo gobernuz kanpoko erakundeak antolatuta, ohiko komunikabideetan albo batera geratzen diren filmak eskainiko dituzte. Aurtengo edizioa nazioarteko 270 titulu baino gehiago aurkeztu dira, eta egileen %40 emakumezkoak direla nabarmendu gura izan dute.

Izan ere, antolatzaileen arabera, *“aniztasun eta konpromisoaren alde lan egiteko jaio den jaialdia da, kontzientziak esnatu gura dituena”*. Jaialdi “ofiziala”

irailaren 27an hasiko da Alhondegian, eta urriaren 4an amaituko da. Bertan 18 film luze eta 44 film labur proiektatuko dira, eta hurreratzen direnek haurtzaindegi zerbitzua izango dute erabilgarri.

Baina beste herri batzuetan ere proiektzioak antolatu dituzte. Esate baterako, Erandioko Tartanga Insti-

Erandioko Tartanga Institutuan proiektzioak egingo dituzte irailean

tutuan proiektzioak egingo dituzte irailaren 26tik 30era. Lehenengo egunean hiru film labur eskainiko dituzte: *X Nada*, *Esperándola* (Honduras) eta *No-sotras* (Guatemala). Martitzenean *Padres*, *Bajo el palo del mango* (Kolonia), *Achemi* eta *Hombre maquina* film laburren txanda helduko da. Hurrengo egunean hiru lan proiektatuko dituzte: *La broma*, *Nuevos tiempos* eta *Este cuento no se ha acabado*. Eguenean, barriz, *Picnic*, *Ring Ring* (Bolivia) eta *Conflicividad agraria en el Potochic* (Guatemala) film laburrak izango dira proiektatuko direnak. Azkenik, irailaren 30ean, lan bi egongo dira ikusgai: *Daisy Cutter* eta *Tukki, la huella ambiental*. ◻

Info+: www.kcd-ongd.org/

Xabier Leteren omenez

Euskal musikari, poeta eta bertsolariek bat egin dute kantariari omenaldia egiteko



Bira Bilboko Euskalduna Jauregira iritsiko da urriaren 8an

Abenduan urtebete egingo du Xabier Leter kantari eta idazle ezaguna hil zenetik. ‘Poeta triste’-ri omenaldia egiteko helburuagaz, alor askotako euskal artistek bira antolatu dute irailetik abendura bitartean. Emanaldiak Euskal Herriko hainbat herritan eskainiko dituzte: lehenengoak Hondarribian, Iruñean eta Baionan izan dira. Hurrengo Bilboko Euskalduna Jauregian izango da, urriaren 8an. Hitzordua 20:00etan jarri dute, eta sarrerak eros daitezke daborduko.

Hurrengo emanaldiak Urnietan, Gas-

teizen eta Donostian izango dira, urriaren 11n, abenduaren 2an eta abenduaren 4an, hurrenez hurren. Aipatu bezala, ekimen honetan artista ugari parte hartuko du: Bernardo Atxaga, Mikel Urdangarin, Paco Ibañez, Txomin Artola, Amaia Zubiria, Xabier Euzkitze, Pier Paul Berzaitz, Karlos Gimenez, Anje Duhalde, Eñaut Elorrieta, Erramun Martikorena e.a. Amets Arzallus, Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariek ere parte hartuko dute. Biran *‘Xalbadorren beriozcan’* edo *‘Herri zahar hontan’* bezalako kantuen bertsioak eskainiko dituzte. ◻

diskoak

Saguekin Dantzan
Aingeru
Aingeru Gorrotxategi



Aingeru Gorrotxategi bakarlarri bilbotarrak bere bigarren diskoa kaleratu berri du, ‘Saguekin dantzan’ izenburupean. Hainbat musikari eta idazleren kolaborazioak izan ditu. Horregatik, proiektu barriari ‘Aingeru eta bere zaindaria’ izena jarri dio. Diskoan pop-rock akustikoa da nagusi, blues eta folk kutsua ere baduen arren.

Lurrikarak
Egurra ta kitto
Egurra ta kitto



‘Lurrikarak’ izena duen diskoa atera du Egurra ta kitto talde azpeitiarrak. Taldeak estilo finkorik ez duen arren, ska lantzen dute gehienbat. Kanta danak euskaraz egiten dituzte, egunerokotasuneko gaiak landuz. Gura duenak kilometroak jaian euren kontzertuaz gozatzeko aukera izango du, urriaren 2an Azpeitian.

Cometas por el cielo
La oreja de Van Gogh
Sony



Talde donostiarraren seigarren lana da ‘Cometas por el cielo’ lana. Ekoizle aldatuta egin du taldeak, eta horrek azken disko honetan eragina izan du: taldekideen arabera ‘aurrekoak baino energia gehiago’ du. Hamaika abesti osatzen dute diskoa, eta ‘La niña que llora en tus fiestas’ euren lehen singleak arrakasta handia jaso du.

mobyDick > EP barria interneten

Azken urte biak tabernaz taberna eta jairik jai kontzertuak eskaintzen ibili ostean, ‘Covers’ izeneko EP barria grabatzea erabaki du MobyDick musikari getxoztarrak. Bere zuzenekoetan ohikoak diren lau bertsio osatzen dute bilduma barria: Reverend Gary Davis taldearen ‘Death don’t have no mercy’, Kyuss taldearen ‘Green Machine’, Bonnie ‘Prince’ Billyren ‘I see a darkness’ eta Mikel Laboa eta J.A. Arterren ‘Martxa baten lehen notak’. Uda honetan grabatu ditu abesti danak MobyDickek, azken kanta izan ezik. Diskoa lortu gura duenak bere web orritik jaitsi dezake debalde.

www.megaupload.com/?d=TASN701G
www.myspace.com/mobydiccklove

oskorri > dantza galduak

Gipuzkoar dantza galduak berreskuratu ditu Oskorri *‘Dantza kontra dantza’* lan barrian. XIX. mende hasieragaz hainbat dantza galdu ziren Gipuzkoan eta Natxo De Felipec gidatutako taldeak horietako hamalau batu gura izan ditu. CD-DVD hau ateratzeko, Joan Ignazio Iztueta (Zaldibia, 1767-1845) dantza maisuak batutako partituras izan dituzte oinarri. Baina Oskorriko lagunek hamalau dantzen bertsio modernoa egin dute, doinua errespetatuz baina euren estiloagaz. Baztango dantzarien laguntza ere jaso dute, eta DVDan Euskal Herriko hainbat txokotan grabatutako dantzak erakusten dituzte, tartean Bilbon grabatutakoak.

www.oskorri.com

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

etorri eta ikusi!!

MORIXA
liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria baloiztean)
Tf. 94 491 68 05
Algorta

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu
%50eko deskontua izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

Mitoak birizik manteneduz Sarrionandia, Lete eta euskal musikari mitikoen inguruko lanak udazkenean

Abendura arte ez dugu Durangoko urteroko literatura zaleen zitari erantzun behar izango. Hala ere, Euskal Herriko argitaletxeak hasi dira 2011-2012 ikasturterako proposamenak luzatzen. Horien artean gure "mitoen" berrargitalpeni zein lagunek horiei egindako omenaldiei begira jarri gara.

Hasteko, misterioz inguraturik datoren izen propioa: Joseba Sarrionandia. Bi dira udazkenean liburu dendetan ikusiko ditugun berrargitalpenak. Alde batetik, Elkarrek 80ko hamarkadako *Narrazioak, Atabala eta euria* eta *Ifar Aldeko orduak* liburuetakoa kontakizunak batu ditu, goitik behera berrikusita eta zuzenduta. Horiei inoiz argitaratu bako zenbait ipuin

Letek hedabideetan esandakoetan oinarritu du biografia Inazio Mujikak

gehitu dizkiete, atxilotu aurretik gaztetan idatzitakoak. Bestetik, *Kartzelako poemak* kaleratuko du Susa argitaletxeak, 1992an argitaletxe berak argitaratu zuen poema bildumaren berrargitalpena.

Iaz joan zitzaigun beste izen handi bati omenaldia egin gura izan dio Inazio Mujikak; *Xabier Lete. (Auto) biografia* bat lanean idazlearen bizitzari eta musikari



Ruper Ordorika

erreparosoa egingo dio hainbat hedabidetan egin zizkioten elkarriketetan adierazitakoak oinarri hartuta.

Azkenik, Beñat Axiari, Mikel Laboa, Imanol Lartzabal eta Ruper Ordorika musikarien lana eta ibilbidearen gogoeta kritikoa argitaratu du Pamielak, Juan Gorostidiren eskutik. Garai eta eremu geografiko beretsuan bizi izan diren musikariek ezberdintasun handiko musika lanak eta barne-paisaiak erakutsi dituzte. Horrek aspaldiko kantuen, soinu-digitalizazioaren, irudi eta sinboloen erabileraren zein beste zenbait gairen inguruan hausnartzera eramandu du Gorostidi. ◊

liburuak

Hessel

Konprometitu zaitzete!

Konprometitu zaitzete
Stephane Hessel
Alberdania

Axolagabekeriaren kontrako aldarrikapen arrakastatsuen ostean, konpromisoaren aldeko aldarria lau haizetara zabaldu gura du Hesselek. Diruaren injustizien kontra eta eskubideen alde borrokatzeko deia egiten die gazteei, ezkortasunetik ihes egitearen garrantzia azpimarratuz.

Irudidun hiztegia
S. Cordier / C. Lacroix
Ttartalo

Irudidun hiztegia
S. Cordier / C. Lacroix
Ttartalo

Hiru neba-arrebak eguneroko bizitzan ohikoak eta oinarrikoak dituzten objektuak eta egoerak aurkezten dituzte irudidun hiztegi honen bitartez. Maitasun handiz egindako marrazki koloretsu eta goxoez hornitzen dute liburua.

[kirola]

Ternua eta Plentzia, lotuta Basurkok gidatutako espedizioa Getxora heldu da hiru hilabeteko bidaiaren ostean



Pakea Bizkaia irailaren 8an heldu zen Getxoko Kirol Portura

8.000 miliako distantzia egin ostean, irailaren 8an heldu zen Getxoko Kirol Portura Unai Basurkok gidatutako 'Ternua' espedizioa. Maiatzaren 29an abiatu zen Pakea Bizkaia Bilbotik, eta ia hiru hilabete behar izan dituzte Ternuara heldu eta itzultzeko. Ternua bisitatzeaz gain, Kanadan, Quebecen, Azore Irlatan eta Groenlandian geldidunak egin dituzte. Herri danetan biologo, geologo edo historialariak batu dira, bertako ingurumena eta historia hurretik ezagutzeko asmoz.

Abentura hasi eta aste bira Nuuk-era heldu ziren Pakea Bizkaiko itsasgizon eta emakumeak. Bertan, inuit kultura ezagutzeko eta izeberg handien artean nabigatzeko aukera izan zuten. San Lorenzo ibaia nabigatu ostean, espedizioaren hurrengo geltokia Quebec izan zen. Pakea Bizkaia nondik norakoak azaldu eta St. Pierre et Miquelon eta Trois Pistoles herrietan geldidunak egin zituzten. Herri biek jatorri euskalduna dute, eta tripulazioko lagunak bertako euskaldunak batu ziren. Bertan XVI. mendeko arran-

tzale euskaldunek baleak arrantatzeko erabilitako erremintak, labeak e.a. ezagutu zituzten.

Ternuako Plentzia herrian egindako bisita berezia izan zen espedizioarentzat. Izan ere, Ternuako herri horrek bere izena zor dio Plentziari: arrantzale euskaldunek izen hori jarri zioten Ternuako herri horri,

Plentzia herriko bandera ekarri du Basurkok, Plentziari emateko

Plentziagaz antzekotasunak zituelako. Herri bien arteko harremanak sendotzen ibili da Sabino Lauzirika ikertzaile plentziarra azken urteotan. Helburu horri helduta, Basurkok Plentziako bandera eman zion Plentziako alkateari, eta bueltan Plentziako bandera ekarri du, Plentziako Udalari emateko.

Ternuari hurrengora arte esanda, Azore irlatan aste bat igaro dute Pakea Bizkaiko lagunak, irltako geografia eta animaliak ikertzen. ◊

Info: www.pakeabizkaia.com

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda




350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 - ALGORTA

Asier Bilbao eta Izaro Gorostidi > Auzolan Topaketak

“Herriarrek antolatzea beharrezkoa da, herriak bere beharrak ase behar ditu”

Auzolanari buruzko topaketak egingo dituzte irailaren 30etik urriaren 2ra Usurbilen eta Uribe Kostarrak ere badaude sustatzaileen artean. Izaro Gorostidik eta Asier Bilbao kontatu digute zertan datzan egitasmoa.

—Hasteko, gaur egun auzolana zer den definitu beharko litzateke.

—Historikoki lur komunalak kudeatzeko tresna izan da, oraindino badago hainbat tokitan. Baina gaur egun zabalagoa da: kontsumo taldeetan ekoizleak eta kontsumitzaileak auzolanean elkarlana egin dute biezako onura ateratzeko, Jai Batzordeetan herriarrek herriarrentzako jaiak prestatzen dituzte. Ondare komuna aurrera ateratzeko lan egitea da auzolana, talde lanean elkarlaguntzea.

—Nork antolatzen ditu topaketak?

—Auzolan egitasmoa lagunok, orain urte eta erdi elkartu ginen, herri mugimenduko eragile zein norbanakook. Denbora honetan batu izan gara eta jardunaldietarako ideia sortu da.

—Zergatik topaketak?

—Gure hausnarketa eta lana kaleratzeko. Auzolanaren kultura zabaldu gura dugu, esperientziak partekatu, auzolana bultzatu eta elkarri lagundu, baita sare bat osatu ere. Krisi integralari auzolanaren bitartez nola erantzun hausnartuko dugu. Herriarrek antolatzea oso beharrezkoa da, ezin espero dugu inork ezer ematea, adibidez, nork antolatuko ditu herriarrentzako jaiak herriarrok egiten ez badugu? Horrela sortu ziren Ikastolak, euskara eta aisialdi taldeak e.a. Herriak bere beharrak ase behar ditu.

—Zer gai landuko dituzue eta nola?



Internet bidez eman daiteke izena parte hartzeko, leku guztiak bete arte: www.aulolan.info

—Batetik, hitzaldiak egingo ditugu hainbat gai lantzeko: herri garapena, krisi globala, Kataluniako kooperatiba integrala. Bestetik, tailer asko prestatu dugu ondokoak lantzeko: ura eta lurraldea, elikadura edo elikagai subiranotasuna, kultura, energia, hezkuntza, etxebizitza, oinarrizko beharrak, euskalgin-

“Historikoki lur komunalak kudeatzeko tresna izan da auzolana, gaur egun zabalagoa da: kontsumo taldeak, Jai Batzordeak, e.a.”

tza, herri-jaiak, aktibismoa eta tresna telematikoak, hondakinak, osasuna, ipar-hegoaldeko sarea eta desazkundera eta komunala. Gainera, tokiko txanponei buruz hitz egingo dugu, hainbat esperientzia ezagutuko dugu, eta *Auzolanaren kultura* liburua aurkeztuko du Jasone Mitxeloren kazetariak. Euskal

historian auzolanaren esperientziak batu ditu.

—Nork parte har dezake?

—Edonork, gura duen guztiak. Gai asko jorratuko ditugu, beraz, herri mugimenduko edozein alorretako eragileek parte har dezakete, baita norbanakook ere, gaian interesa duen orok. Kontua da bes-

telako tresna sozialak abiatzea. Gaia anitzta da, auzolana lur komunalari lotuta egon da, baina gaur egun bestelako esperientziak ere badaude. Aurrera egin gura dugu eta konturatu Euskal Herrian ondare itzela daukagula, altxor handia da. Internet bitartez eman behar da izena, 500 lagunentzako lekua dago. ○

Fredi Paia

Sorgin-lezeko sirpe

Edo irileko Andra Mari. Eguzki egutegiko ude bagilaren hogeta lauen hasi eta irilen atzenen akabaten da. Frazer eta Caro Barojak aitazten deuden irerri egutegi, ostera, maiatzan hirun hasi eta irilen hamalaun, irileko Santa Kurtz egunez akabaten da. Igezkio *Trugoiaren sasoi* idazkunen aztertu gendun apur bet ziklo honen sinbologia. Zelan Mari edo Andra Maria, trugoi eta herensugek, guren *sirpe* esaten dakona, kontzeptu bakar baten hiru arpegi direzen. Iretargi egutegiko ude hasikeran Barrike eta Sopelan egiten ziren errituk aztertu genduzen lez, geur, ziklo edo ude akabukeran, irilen zortzin, Andra Mari egunez Lemuxeko Marutxeaga auzo eta bertako Sarakotxe (*Zorageto* testu zaharretan) barriaden iten euden jaiak sustraiez ingo du berba.

Edadekok ezetu deude, irilen zortzin, Andra Marin imagine Armintzeko ermiteti Sarakotxetako Marutxeaga etxeko portaleraren erroten iaun prozesino. Bertan meze egiten zan, *trugoi amarra* iteko, Santa Kurtz egunez, irilen 14n zelebraten euden modun, bezkari jan eta atsalden Basor-datako kalan bainateko jasa egoten zan.

Barandiaranek argi esan euskun lez, ziklo honen hasikera eta akabukera errituk kosetxe edo uzten kontra kaskagaragarra, justuri, trugoi eta mamarrok agintzen dauzen Mari edo lezezuloren baten bizi den herensuge konjurateko helburuaz iten ixen direz Euskal Herriko luzezabalaren.

Guren bere, ondo begitu ezkeron, gauza bera topa gengi. Ixen bere, Lemuxe eta Jatabe arteko Marutxeaga edo Basorportu sinbolismo nahie dekon ingeru da. Jatako bizkerretan, Lemuxera don isurialden jaioten da Lamitzeta erreke. Bertako putzuten, uzenak dinon modun, laminek



Basorda ingurua, Lemoizen

keran dago Sorgin-leze deretxon kobazulo, eta bertan bizi de *sirpe* uzeneko suge derditxedu, Atxabaso uzeneko esparrun. Atxabaso sakosta bat da, troka bat. Eta bertan dao sorgin-leza. Sakosta horren gorune baten Txiboko landa dao, akarran lande bere esan genkiona, eta bertan sorginak batzen zirela entzunta deukee ingeruko duztik. Geuze jakine da bertan erro-

«Lamitzetako putzuten, uzenak dinon modun, lamiek ule orroztuten euden»

merik iten zirela irilen zortzin, aginterik galarazo eudezan arten. Landa horren erdin hiru munarri dao, bata beste bik baizen arean handitxuau. Edadekok dineude sasoi baten munarri horreek Mungi, Jatabe, Lemuxe eta Plentzin arteko muge iten eudela, hara batzen zirela pastorek euren jaiak iteko.

Txiboko landa ondun *Zinbritxa basamortu* dao, baso berezi bet. Ixen bere, baso horren erdin edadekok *Zinbritxako hutsune* esaten deutsun leku dau, hedoi daonen justurik beti jotzen dauen lursaile.

Atxabaso sakostaren beste gorunen dao Marutxeaga etxe eta Sarakotxe auzo, irileko Andra Mari jai eta meze iten ziren lande. Beraz, emoten dau gure eurrekok sano ondo ekiela zegaiti jotzen ziren hara *trugoi amarraten*. ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



portu zaharra bar
 Portu Zaharra kalea 35
 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
 Tf. 94 460 20 33
 portuzaharra@portuzaharra.com
 www.portuzaharra.com



SOLAETXE
 Eguneko menua **Jatetxea** Karta
 Asteburuko menua Oilasko erretegia
 Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantsolaetxe.com



La Triangu.
 Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi
 Hanburgesak Ogitartekoak
 Sanwichak Plater konbinatuak
 SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
 ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz



txakoli mota gane tx
 txakolina
 Leioa-Unbe errepeidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
 Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA
WWW.UNAITABERNA.COM
94 466 16 61
URGULL KALEA 2, (ALGORTA)



CAFETERIA COSMOPOLITA
 Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
 Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



JAN-TOKI ORMAZTEBAL
 Eguneko menua
 Menu bereziak
 Karta
 Erreserbak:
94 476 2389
607 21 89 61
 LUTXANA-ERANDIO



GURE ETXEA taberna
 HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
 Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxotan]

Sinpleak bezain gozoak

Ez dute aurkezpenik behar: gildak!



Rita Hayworth aktorearen film batengatik jarri zioten 'Gilda' izena pintxo ezagun honi

Ikasturte barriagaz batera hainbat barrikuntza ekarri dugu UK-ko orriotara. Sukaldaritza atal honetan, berbarako, tri-pazorriak dantzan jarriko dizkigun pintxo errezetak izango ditugu aurrerantzean, Algortako Portu Zaharra tabernaren eskutik.

Eta lehen pintxo gisa, sinplea bezain gozoa eta ezaguna den mokadutxoa ekarri dugu gurera: gilda. Portu Zaharreko gildak, gainera, ospe handia dute, gilda danak bardinak direla eman dezakeen arren. Portu Zaharrean kontatu digutenaren arabera, sekretua genero kontua eta egiten duenaren eskua da, "maitasunez egin behar dela" ahaztu barik, noski. Lau gilda ezberdin eskaintzen dituzte tabernan, baina danak saltzen dira antze-

ra. Osagaiak edukiz gero, bost minututan egin daitezkeen pintxoak da. Ohiko gildaren prozesua honakoa da: hiru pipermin hartu eta antxoa bategaz inguratuko dugu (zuria den aldea kanpotik utziko dugu, erakargarriagoa baita). Dana zotz bategaz zulatu eta zotzaren mutur bakoitzean oliba bana jarriko dugu (beteak izan daitezela, dentistarengana joan gura ez badugu behintzat!). Aukeran, buruari eragin eta bestelako osagaiak gehi diezazkiogu (piperra, tipula, binagreta e.a.). Eta listo, badugu gure gilda prest! ◊

Ezkerreko gildaren osagaiak: tipula, pipermin gozoak, oliba beteak, antxoa eta binagreta (piper gorri eta berdea, tipula, oliba-olioa, ozpina eta gatza).

Eskuineko gildaren osagaiak: antxoa gazia, oliba beteak, pipermin gozoa, piper pikantea eta berakatz binagreta.



Zurikaldai
 JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
 KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO




BASARTENA
URDULIZ
 Teléfono: 946 761 128




JUAN-MARI
 Harategia eta txarkuteria
ARTESANA
 LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
 Aituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!
 Alangobarri 10, ALGORTA
 Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI
 edantokia
 frontoi partikularra
 Aita Gotzon 4, URDULIZ
 Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri
 Sarrikobaso 4 -ALGORTA
 Tf. 94 430 64 93

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Apiriluzeko z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangobarrí 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA **HARTU TXANDA**

GOIZEAN
"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixareriak
Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

KOSKA
irratia 108 FM

COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.
Harritzeko moduko kalitatea!
-Garbiketa orokorrak
-Mantentze garbiketa
-Garbiketa industrialak
-Itsasontzi garbiketa
-Ospital garbiketa
-Elkagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
-Legionellaren kontrako tratamenduak
-Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industriak garbitzea
-Lan osogarria
Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

[horoskopoa]

<p>URA ◆ (Abenduak 21 urtarrilak 19) Jaietako azken txanpan sartuta gabiltza, udak bereak egin eta etorri bezala joan da. Hondartzarako tarte gutxi eskaini digu, eskerrak igerilekua hor egon den...</p>	<p>OTSOA ◆ (Urtarrilak 20 otsailak 18) Beti presaka, bai presaka, inora ez iristeko. Baina nora zoaz? Ikasturte barria hasi eta amaitzera zoazela ematen du. Har egizu arnasa, aurretik tarte handia daukagu-eta oraindino.</p>	<p>ADARRA ◆ (Otsailak 19 martxoak 20) Oporretatik herdoilduta itzuli zinen, eta kostata, baina lortu duzu azkenean irailako aldatsa igotzea. Giharrak ondo koipeztu eta aurrera, laster datoz urriko zubiak!</p>
<p>AITZURRA ◆ (Martxoak 21 apirilak 19) Ikasle bizitza onena dela esaten dizute aldiro, baina nazkatu zara, lelo horiek ez dakite Bologna zer den! Bidal egizuz pikutara eta jan espagetiak bolognar erara.</p>	<p>HOSTOA ◆ (Apirilak 20 maiatzak 19) Aste pare bat baino ez da gimnasioan izena eman duzula eta daborduko piper egiten? Marka guztiak hautsi dituzul! Ixaron hila amaitu arte, matrikula amortizatzen.</p>	<p>EGUZKIA ◆ (Maiatzak 20 ekainak 18) Eguzki hori! Uda honetan ez zaitugu apenas ikusi, zer ibili zara? Non sartu ote zara? Udazken goxoa ei dator, lanerako gogoagaz zatoz? Bada, has zaiteske bazterrak berotzen.</p>
<p>GARIA ◆ (Ekainak 19 uztailak 18) Oasiko erreginari abestu zion norbaitek, eta zu udako erregina izan zara aurretik, non sartu da, ordea, zure errega? Dagoeneko korroa galdu du? Zu bai zu egoteka...</p>	<p>LASTOA ◆ (Uztailak 19 abuztuak 17) Pirritx, Porrotx eta Marimotoseguz ederto gozatu zenuen aurrekoan. Kantatu, dantzatu... Baina loba kokoteraino daukazu, bilatu beste aitzakiaren bat pailazoengana hurbiltzeko!</p>	<p>IRATZEA ◆ (Abuztuak 18 irailak 16) UK-ko errezeitei jarraituz, eskualdeko jaietako sukaldaritza txapelketa guztietan parte hartu eta ederto lotu zara, sariren bat ere lortu duzu, zorionak! Kalitateko errezetak, kalitateko sariak.</p>
<p>META ◆ (Irailak 17 urriak 16) Orain lagun denak lanean jo eta ke, eta zu oporretan, hori zorrote! Abuztuan guztiz akitu, baina ahaleginak merezi izan du. Halere, ez zara aspertzen ari zu bakarrik hor galduta?</p>	<p>HAZIA ◆ (Urriak 17 azaroak 15) Hainbeste gutun bidali ostean, telebista saio batean parte hartzeko deituko dizute. Ospetsu bihurtu eta atzetik izango dituzu kazetari guztiak... benetan merezi al zuen?</p>	<p>NEGUA ◆ (Azaroak 16 abenduak 20) Lehenengo egunean tranpa egin, gurasoak haserretu eta paga barik utzi zaituzte hilabetez. Aprobetxatu azken eguzki egunak, itsasoa bainatzeko ordaindu beharrik ez dago-eta.</p>

Udazkenean ere euskarari heldu!
euskara
HABEK di... z lagundu
Maila guztiak ordutegi desberdinetan
EGA lar... bat
e-mail: j.a.agirre@euskalnet.net

JOSE ANTONIO AGIRRE EUSKALTEGIA
Algortako Etorbidea 104
48991 Algorta - GETXO
Tf. 94 460 66 71



Ordu Hitzak

Bi edo hiru letra dagozko erlojuko zenbaki bakoitzari. Ordu hitzak osatzeko, orduekiko letrak idatz itzazu lehenik eta minutuekikoak gero. Adibidez, hamaika eta erdietan 'lagin' hitza itxuratuko dugu. Zerrendako orduen arabera hitzak ordenan irakurri ondoren jakingo duzu zer esan zion, maltzur, laneko arduradunak Patxiri.

1. Bederatziak eta hamar.

2. Ordu bata hogeita bost gutxi.

3. Hamarrak eta hogei.

4. Zortziak eta laurden.

5. Hamaikak eta hogeita bost.

6. Hamabi eta erdiak.



ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

*“Urrutiko intxaurrak
hamalau
bertara gerturatu
eta...”*

> Aurrekoaren erantzuna: 1999

> Irabazlea: **Mitzel Sarasketa**

*deitu telefonoz: 944 911 337

*Zein hilabetetan
hasi duzu ikasturtea?*

- **Martxoan**
- **Irailean**
- **Urtarrilean**

> Aurrekoaren erantzuna: 200

> Irabazlea: **Garikoitz Etxebarria**

*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA **Argia**
astekariaren biru hilabeteko
harpidetza doan



SARIA



Atxagaren 'Astakiloen abenturak'
ipuin bilduma



Bidalari erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 944 911 337 telefonora deitu



LUIS FRONTELA * KATALAN'EK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

ALGORTAKO TRAINERUA ZIERBENAN, 1981

Bizkaiko Traineru Txapelketa urtero herri batean izaten zen eta urte horretakoa Zierbenan egokitu zen. Antolaketa Bizkaiko Arraun Federazioaren kontura lotzen zen. Estropada honi buruzko gertaera bitxia dugu; Mundaka aurretik zihola tarte txiki batez, Algortak hirugarren ziaboga txarto hartu zuen, istriborretik, eta, ondorioz, errepikatu behar izan zuen ziaboga denbora piloa galduz, baina Algortak ez zuen amore eman; gogor erreazionatu eta Mundaka gaindituz, txanda hori irabazi zuen. Honela geratu zen azken sailkapena, ohorezko txandari dagokionez: 1. Santurtzi 21-10-0; 2. Kaiku 21-17-3; 3. Portugalete 21-20-0; 4. Algorta 21-20-3. ○

Brankaria: Manuel Fernández "Manu" (20).**Ababorrean:** Jon Ander Saitua "Pekas" (18), Karlos, Joseba Gorostola (22), Luis Frontela "Katalan" (24), Jose Luis Goiri (24), Jose Antonio Mena (20).**Istriborrean:** Goñi, Jon "Ferreta", Joseba (Urdulizkoa), Asensio Gorostola "Asen" (24), Jon Etxebarria "Latiguillo" (20), Felix Rodriguez (21).**Patroia:** Angel Remiro*.

*Garai hartako beste patroia Portu Zaharreko Marcos Bretos "Markitos" zen, "Bizarra Lepoan" 24. zenbakian eta UK 67, 162, 181. zenbakietan ikus dezakezu.

[aitormenak]

DJ XAIBOR > 'Diskotxoua'-gaz Uribe Kosta girotzen

“Nire azken erokeria egun berean bost emanaldi eskaintzea izan da”

Testua: **Julen Nafarrate**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Tipo alaia, jatorra eta oso eskuzabala.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Euskara hutsezko edozein filmetan, “Aupa Etxebeste!” pelikulan adibidez.

Orain zarena izango ez bazina zer izango zinateke?

Telebistako aurkezle lanak oso gustura egingo nituzke, komunikazioa gustuko dudalako.

Eta zertan ez zenuke jardungo?

Altxorrak bilatzen, oso aspergarria izan behar duelako.

Ohitura txarren bat?

Lagun batez kalean noanean eskuman joan behar dut beti, bestela egoerak rollo txarra sortzen dit.

Musika talderik gogokoena?

Jokaldi taldea.

Zein da zure ametsetako bat?

Belen Esteban izatea, kar-kar! Ez, txantxa da, mundua lasaiagoa izatea nahiko nuke.

Miresten duzun historiako pertsonairen bat?

Einstein.

Azkenaldian egin duzun erokeriarik handiena?

Egun berean, ekainaren 23an, bost emanaldi eskaintzea.

Zein da biharko egunkarian irakurri gura zenukeen barria?

‘Salvame’ amaitzen dela.

Zer barik ezin zaitezke bizi?

Guraso eta lagun barik.

Zeren beldur zara?

Momentuz ezerena ere ez. ○

LABURREAN— Ohi dan lez, uda honetako jaietan bertso-saio, herri-bazkari, kirol-txapelketa, txosna eta abarretaz gozatzeko aukera izan dugu. Baina Uribe Kostako jaiak elementu komun barria izan dute, eguraldi kaxkarrak gain: DJ Xaibor. Xabier Zubiagak (Gernika-Lumo, 1984) kamioia hartu eta eskualde osoa zeharkatu du bere ‘diskotxoua’-agaz: Algortako saninazioetan, Sopelako sanpedroetan, Berangoko Santa Ana auzoan, Plentziako sanantolinetan, Gorlizko Urezarantzan... Gernikarrak Plentzian eskaini zuen bere lehen emanaldia orain zortzi urte, eta geroztik ez du etenik izan, txikien eta ez hain txikien gozamenerako. Musikaz gain, telebistaren munduan ere ibili da Xaibor.

DANTZALDI IBILTARIA

2011~12

Erandio, Sopela,
Gernika, Galdakao,
Durango, Zarautz,
Zaratamo, etab.

OINARRIZKO DANTZA IKASTAROA

- Erromerietako dantzak ulertu eta ikasteko.
- Hasieratik, lehen urratsetatik.
- Jota, Porrúa, Jauziak, Balsa, Pasodoblea, Txotisa, Mazurka, Polka...

DANTZAGUNEA

- Oinarrizko ikastaroa egin dutenentzako, dantzarri ohientzat eta oinarrizko dantzaren ezagupena dutenentzat.
- Astero dantzan, dantzazaleen artean eta giro atseginean praktikatzeko tokia.
- Aiko taldeko dantza maisuen gidaritzapean dantzakera, ulermena eta errepertorioa aberasteko aukera.

Erandion astelehenetan, Merkatu zaharrean
Sopelan asteazkenetan, Iberre Ikastetxean

OINARRIZKO DANTZA IKASTAROA:

18:00etatik 19:30era

DANTZAGUNEA:

19:30etik 21:00etara

90 minutu astero urritik ekainera
izen ematea 120 euro

www.aikotaldea.com • tel. 646 336 147



Unibertsitateko Aisia Kulturala

Getxo

2011-12 Ikasturtea // 1. seihilekoa

IKASTAROA:

GAUR EGUNGO GATAZKEN AZTERKETA

Irakaslea: Josu Otxoa

Lekua: Algortako Kultur Etxea (Villamonte)

Ordutegia: 19:00-20:30 (astearteetan)

Egutegia:

URRIA	4, 11, 18
AZAROA	8, 15, 22, 29
ABENDUA	13, 20
URTARRILA	10

Eta gainera...

- **Paleoantropología: prehistoria** // Irakaslea: José Antonio Lombera
urriaren 4tik urtarrilaren 10era (astearteetan, 17:00etatik 18:30era)
- **Islam: historia, pensamiento y mundo actual** // Irakaslea: Hithem Abdulhaleem
urriaren 6tik abenduaren 15era (ostegunetan, 17:00etatik 18:30era)
- **La historia de la fotografía mediante sus imágenes** // Irakaslea: Iñigo Sarriguarte
urriaren 6tik abenduaren 15era (ostegunetan, 19:00etatik 20:30era)

INFORMAZIO GEHIAGO: Algortako Kultur Etxea (Villamonte, A-8) // Tel.: 94 491 40 80